

EMANUELA ORLANDI: Botere
guztiak inplikatu zituen 15 urteko
neskatoaren desagerpena > 4

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Estrasburgoko sorpresarik gabeko
sorpresaren harira MIKEL ZUBIMENDI > 11

2018ko azaroaren 10a | XII. urtea • 594. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



ZAILA, NEKEZA, GOGORRA; BAINA BIDEA

> 7 Pedro PARDO | AFP

**Botere guztiak inplikatu zituen
neskatoaren desagerpena** 04

**Migratzaileen «karabana», San
Cristobal de las Casasetik** 07

**Elikadura burujabetzaren gaineko
jardunaldiak Bilbon** 12

Fiskala eta interes orokorra 17

**Behobia-Donostia eta Arnastu
Behobia ekimena** 18

**E.lkarrizketa: Ibai Telletxea, 1609
elkarteko kidea** 22

Sarean 26


In fraganti: Arrate Illaro 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Gorka Elejabarrieta:** Bideak
10 **Ander Gortazar:** Mapak (III)
11 **Mikel Zubimendi:**
Estrasburgoko sorpresarik
gabeko sorpresaren harira
16 **Alai Zubimendi**
20 **Gorka Zozia:** Sofiaren IA
21 **Iker Barandiaran:** Jarrera
hilezkorra
25 **Maidar Iantzi Goienetxe:**
Sentsibiltateaz, berriz ere
25 **Xabier Mikel Errekondo:** Urduri
dago Markel Olano
30 **Garazi Goia:** Ez dago lekurik



{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

Bideak

Quebec, Eskozia eta, orain, Kanaky. Ospatu ditugun azken erreferendumak galtzaile suertatu dira, eta, hala ere, zoriondu egin ditugu. Kataluniakoa irabazi zen, baina, zoritxarrez, guztiok dakizkigun arrazoiengatik ezin izan zuten erabakitakoa gauzatu.

Sedukzioa ala indarra. Zein bide da eraginkorragoa estatuaren interesa den batasuna ziurtatzeko? Aipaturiko adibideak oso modu arinean begiratuta, «biak» erantzungo genuke ziztu bizian. Izan ere, azken ondorioa, momentuz bada ere, proiektu independentista ezin gauzatzea izan baita.

Sedukzioa ala indarra, zein bide hautatu? Bata izan edo bestea, ondorio oso diferenteak ditu bestelako eremuetan. Eskoziaren eta Erresuma Batuen arteko harremana edo Kataluniaren eta Espainiako Erreinuaren artekoa ez da berdina. Urriaren 1ean bozkatzera joan ziren katalanek, independentista izan edo ez, ez dute espainiar Estatuaren partetik jasotako biolentzia sekula ahaztuko. Kanaky eta Estatu frantsesak duela 30 eta 20 urte sinatu zituzten bake akordioak, baina, aldiz, Estatu frantsesak Kanakyn egin-dako sarraskiak oraindik orain kanaken subkontzientean oso presente daude. Oroitu Karembeu futbolari kanak ospetsuak Frantziako Mundialean

“Marsellesa” ez abestea erabaki zueneko. Belaunaldiak beharko dira harremanak berriz ere zuzentzeko. Bestalde, bere hautu librearen bidez estatuaren parte izaten jarraitzea erabaki duenak estatu horren kide badela senti dezake. Bortxaz estatuaren parte izatera behartua dagoenak, berriz, ez du sekula ere estatu hori onartuko, eta ez da sekula estatu horren herritar sentituko.

Estatu indartsua behar da, norbere eremuan konfiantza duena, sedukzioaren bidea aukeratzeko. Zure helburua batasuna eta *estatus quo*-a mantentzea izanik, eskaintzeko daukazun horretan konfiantza izan behar duzu, hori bilakatzen baita zure helburuak be-

tetzeko bidea, bide bakarra. Alderantziz, ezer eskaintzeko ez duzunean –ezer onik ez behintzat– zure buruan eta proiektuan batere konfiantzarik ez duzunean, estatu ahula duzunean, nola egin batasuna eta *estatus quo*-a mantentzeko? Ez duzu aukerarik ez eta tarterik sedukziorako, eta, horregatik, indarra erabiltzera behartuta zaude behin eta berriro. Momentuan, epe laburrean irabazten zoazela iruditzen zaizu, emaitzak hor daudelako, baina ez zara konturatzen jada galtzen hasia zarela.

Eta estaturik gabeko herrien ikuspegitik, zein da bidea? Estatuarekin akordioa bilatzen duena edo konfrontazioarena, alde bakarrekoa? Nire ustez biak ala biak berdinak dira. Herri demokratikoenetan ere konfrontazioa da akordioa ekarri duena. Aldez aurreko konfrontaziorik gabe ez da elkarriketarik, negoziatorik, akordiorik, erabakitakoarekiko errespeturik. Noiz onartu zuen Erresuma Batuak Eskoziako erreferenduma? Noiz Kanadak Quebecoko Argitasun

Estaturik gabeko herrien ikuspegitik, zein da bidea? Estatuarekin akordioa edo konfrontazioa? Nire ustez biak ala biak berdinak dira. Herri demokratikoenetan ere konfrontazioa da akordioa ekarri duena

Legea? Noiz frantziar Estatuak kanaken autodeterminazio eskubidea? Noiz Danimarkak Faroe uharteen autonomia? Noiz Norvegiak Sami Herriaren autonomia? Noiz Suediak norvegiarren autodeterminazioa? Historiak zeozer erakutsi badigu, norbere eskubideak borrokatu egin behar direla da. Horregatik, gurean batzuetan ematen diren zenbait eztabaida filosofiko-metafisiko apur bat antzuak iruditzen zaizkit.

Arrautzaren eta oiloaren eztabaida puristan murgiltzen gara batzuetan, ahaztuz errealitatea, mundu erreala, oso diferentea dela. Poema famatuak dioen bezala, bidea ibiliz egiten da, eta, ibiltzen zoazen heinean, bide berriak irekitzen doaz. •

EMANUELA ORLANDI

Botere guztiak inplikatu zituen 15 urteko neskatoaren desagerpenaren istorioa

 **VATIKANOA** / Aimar Etxeberria Korta

Erroma, 1983ko ekainaren 22a. Arratsaldeko zazpiak dira Emanuela Orlandiren, 15 urteko neskatoaren, pista galtzen denean. Musikaria da Emanuela –zeharkako flauta jotzen du–, eta *Cinque Lune* –bost ilargi– plakatik gertu aurkitzen den musika eskolatik atera berri da. Etxera deitzen du telefonoz, eta ahizparekin hitz egiten du. Nonbait, lan-eskaintza bat egin dio ezezagun batek: 375.000 lira eskaintzen dizkio bizpahiru orduz Borromini aretoan edertasun-produktuak banatzeagatik. Eskaintzari susmo txarra hartu eta berehala etxerako bidea hartzeko eskatzen dio ahizpak; Emanuela, baina, ez da gehiago etxera itzuliko.

Orduz geroztik, asko idatzi eta gehiago hitz egin da Emanuela Orlandiren desagerpenaz. Izan ere, italiar Estatuaren zein Egoitza Santuaren estoldetaraino iritsi da kontua; Vatikanoa bera eta mafia, beste instantzia batzuen artean, ziprztindu ditu aferak. Iragan astean ibili zen kasua, enegarrenez, bolo-bolo Italiako iritzi publikoaren ahotan; nonbait, 15 urteko gaztearenak izan daitezkeen hezurak topatu zituzten Villa Georginan, Egoitza Santuaren jabetzakoa den baina Hiri Santuaren harresieta at dagoen eraikinean.

Oraingo, dakigun bakarra da emakume batenak direla aurkitutako hezurak, baita pertsona bat baino gehiagorenak direla ere. Erromako Fiskaltzak, Giuseppe Pignatone buru, adierazi du hilketa gisa ikertuko dutela aurkikuntza. Nork, eta zergatik, bahituko zuen baina Emanuela Orlandi? Eta ondoren hil eta gorpua de-

Orain 35 urte desagertu zen Emanuela Orlandi Erroman. Ekaineko arratsalde eguzkitsu batean galdu zen haren aztarna, eta ordutik hamaika dira gertaeraren harira haizatu diren konspirazio teoriak. Botere nagusi guztiak inplikatu zituen 15 urteko neskatoaren desagerpenak, Egoitza Santua eta mafiaren estoldak ziprztinduz.

sagerrarazi? Hamaika dira azken 35 urteotan aipatu galderrei eman zaizkien erantzunak; guztiak azaltzerik ez eta nondik heldu gehien duten teoriak plazaratuko ditugu ondorengo lerrootan.

KASUA, IKERTU ALA OZTOPATU

Urteotan guztietan zehar anitz izan dira neskatoaren inguruko informazioen bat dutela

Italiaren historia garaikideko bahiketarik mediatikoena izan zen Emanuela Orlandirena. Felixtz

hara eta hona primizia saldu nahirik aritu diren aprobetxategiak, besteen desgrazia etenkin propio bilakatu nahi izan dutenak.

1981eko maiatzaren 13a zen Mehmet Ali Agca turkiarrak, Vatikanoko San Pedro plazan, Joan Pablo II.aren aurkako atentatua egin zuenean, hura bala-tiroz zaurituz. Biziarteko kartzela zigorrera kondenatu

zuten hargatik, 2010ko urtarri-lean Ankarako espetxe batetik irtiten eta askatasuna berreskuratu bazuen ere. Turkiarra da Emanuela Orlandiren desagerpenaz lehenengo pistak eman zituen protagonista.

Bere aurkako epaiketan, Licio Gelliren P2 logia masonikoa seinalatu zuen, baina egun batzuen ostean atzera bota zuen akusazioa. Zazpi urteren buruan, 15 urteko gaztea bere kide batek bahitu zuela adierazi zuen, bere askatasunaren truke. Arrazoiketa berari heldu zion 1997an bi epaileri bidalitako gutun batean. Orduko hartan azaldu zuenez, zerbitzu sekretu sobietar eta bulgariarrek bahitu zuten Orlandi, betiere bere askatasunaren alde presio egiteko mekanismo gisa. Kontuak kontu, kasua ikertzen ari zen Rosario Priore instrukzio epaileak ebatzi zuen turkiarra ez zela fidatzeko gizona, eta



ezin zela inolako prozesu judizialik martxan jarri haren deklarazioetatik abiatuta.

VATIKANOA ETA MAFIA, NAHASTUTA

Bada, baina, urteotan guztietan susmopean egon den instituzio bat: Vatikanoa. Eta bada arrazoirik horretarako, batzuek nahiko lituzketenak baino gehiago aukeran. Vatikanoko hiritarra zen Emanuela desagertu zenean eta Vatikanoren tzat egiten zuen lan haren aitzak, aurrez aitona egin zuen moduan; kasik mende bat emana zuen Orlandi familiak Egoitza Santuaren esanetara. Eta Vatikanoa izan zen, Joan Pablo II.a Aita Santuaren ahotik, 15 urteko gaztea bahitua izan zela ulertarazi zuen lehen erakundea.

Emanuela desagertu eta aste batzuetara, uztailaren 3an, San Pedro plazara bistaratu zen Joan Pablo II.a angelusa erreza-tzera, eta hala esan zuen: «Elkartasun osoa adierazi nahi diot Orlandi sendiari [...] Ez dut itxaropenik galtzen kasu honen arduradunek sentimendu gizatiarrik izan dezaten». Lehenengoz, norbaitek aditzera eman zuen Emanuelak ez zuela bere kabuz alde egin etxetik, baizik eta norbaitek eragin zuela haren desagertpena. Vatikanoren akatsa ala adierazpen deliberatua izan zen Aita Santuarena?

Izan ere, bada teoria bat esaten duena Joan Pablo II.ak fokusak desbideratzeagatik egin zuela adierazpena, begiak Vatikanoren lurretan jazotako istripu edo ustezko delitu aitortu ezin batetik aldentzeagatik. Aipatu teoriak are indar gehiago hartzen du kasua ikertzen aritu izan diren hainbat epaileren esanak aintzat hartuz gero, bat baino gehiago izan baita Vatikanoren kolaborazio



Emanuela Orlandiren desagertpenaren inguruan zalantzak nagusi izanagatik, ukazezina da auziak zuzen-zuzenean ziprztintzen duela Vatikanoa.
Vincenzo PINTO | AFP

eza salatu izan duena. Egiari zor, kasuan nolabaiteko inplikazioa izan duten italiar Errepublikako funtzionario guztiak topatu izan dira Egoitza Santuaren kolaborazio faltarekin, informazio ezkutatzaz ez hitz egitearren.

Bada Italian indar handia duen kaleko esamesa bat. Honen arabera, prelaturako figura garrantzitsu batekin biltzekoa zenean hil zen Emanuela Orlandi. Egoera horretan, arazoa gorpuarekin zer egin bilakatu zen, eta orduan agertzen da eszenan lehenengoz Erromako mafia, Maglianako Banda talde kriminalean eta honen buru Enrico de Pedis *Renatino*-n pertsonifikatzen dena. Bada, gainera, esamesa horri nondik heldua ematen dion jazoera bat, eta hori Vatikanotik, anonimoki, Adele Rando epaileari bidalitako gutun bat da, non honakoa esaten zen: «Emanuela Orlandi arratsalde hartan igo zen auto-

aren gidaria [prelatuaren ize-na] zen. Civitavecchiara joan eta bertan igaro zuten gaua elkarrekin. Goizean Erromara itzuli ziren, baina neskatoa ez zen itzuli etxera, gurasoen erantzunaren beldur zen eta. Ezagun dut [prelatuaren ize-na], eta esan dezaket gehiegi gustatzen zaiola giza haragia elizgizona izateko. Jakinak diren arrazoen ondorioz, ezin dut nire izenik eman».

Hezurak topatu aurretiko azken kapituluan, 2017ko urrian, Vatikanoko kutxa gotorbatetik ateratako dokumentu bat eman zuen argitara Emiliano Fittipaldi kazetariak. Bost orri luzeko aipatu dokumentuan –1988an datatua–, antza, Egoitza Santuak bere diru bereizietatik Emanuela Orlandi fokuetatik at mantentzeko enplegatu zuen diruaren berri ematen da. 500.000 milioi lira guztira, kasua jarraitzen ari zen prentsa kontrolpean izateko, ginekologora eginiko bisi-

tak ordaintzeko, orduko Sultzar Guardiako arduradunek Joan Pablo II.aren mediku pertsonalarekin Londresera eginko bidaiak ordaintzeko...

RENATINO, URAKANAREN BEGIAN

Gorpuaren ezkutatzaz hitz egitean, jardun guztien protagonista Renatino da. Haren maitale Sabrina Minardi izan da urteotan mafia gizonak zekiena eta ustez egindakoak iritzi publikoari helarazi dizkiona. Garai ezberdinetan hitz egin du Minardik, eta bertsio ezberdinak eman. Zaharrena, epailearen aurrean deklaratu zueneko. Orduko hartan, Paul Marcinkus artzapezpiku estatubatuarra seinalatu zuen, Vatikanoko Bankuko zuzendari ohia. Minardiren arabera, Marcinkusen agindua jarraituz bahitu zuen Renatinok Orlandi, nonbait, haren aitzak –Vatikanoko langilea bera– ikusi behar ez zituen paper batzuk ikusi zituelako. Antza, kokai-



naz lepo zela egin zion aitorpena mafiosoak. Handik gutxira, 1990eko otsailaren 2an, Maglianako Banda talde kriminaleko kideek eurek hil zuten beren burua; hala, hilobira eraman zituen Renatinok bere sekretu guztiak.

2008ko ekainean, halaber, bertsioa aldatu zuen Minardik. Espetxetik atera berria zen, eta errehabilitazioaren bideari ekin berri zion. Bigarren aitor-tza horren arabera, Emanuela Orlandi desagertu eta egun gutxira Minardik berak eraman zuen, Renatinok hala eskatuta, neskatoa autoan. Behin gasolindegia batera iritsita, Vatikanoko matrikula zera-man auto batean sartu zuten Orlandi; gidaria, nonbait, apaiz bat zen. Minardiren kontakizunaren arabera, kontzientea zen 15 urteko neskatoa, baina burua ez zuen argi.

Era berean, adierazi zuen Orlandi Maglianako Bandaren jabetzako etxe bateko sotoan izan zutela ezkutatuta hainbat

hilabetez. Hala, egun batez Erromatik gertu dagoen Torvaianican egiten ari ziren obra batzuetara joan zen Minardi Renatinorekin. Han, Sergio izeneko tipo bat agertu zen, poltsa batzuk eskuetan zituela. Hauek atera eta masadera baten barrura jaurti zituen. Minardik esan zuen ez zuela ikusi poltsen barruan zegoena, baina gaineratu zuen Renatinok berak baieztatu ziola bere susmoa: Emanuela Orlandiren gorpua zen.

Minardiren arabera, Renatino eta bere Maglianako Bandak Vatikanoari egin nahi zion

Egoitza Santuaren jabetzako eraikin batean aurkitutako hezurak Manuela Orlandirenak ote diren ikertzen dabilta.
Alberto PIZZOLI | AFP

Joan Pablo II.a hiltzen ahalegindu zen Mehmet Ali Agca turkiarrak eman zituen neskatoaren desagerpenaren inguruko lehendabiziko pistak, baina ez ziren inoiz serio hartuak izan

Vatikanora seinalatzen dute kaleko esamesek Emanuela Orlandiren desagerpenaren erantzun bila; gorpua ezkutatzaz hitz egitean, ordea, mafiak ditu erantzun hobeak

ria honen arabera, Maglianako Bandak, bere parte legezko bideetatik aldarrikatu ezin eta, Vatikanoari presio egiteko, bahitu zuen Orlandi.

SARKOFAGOKO HEZURRAK

2012an, urte batzuk lehenago Rai3 telebista kateko programa batera egindako telefono dei bati jarraiki, Renatinoren hobia zabaldu zuten. Dei haren arabera, bertan begiratu behar zen Emanuela Orlandiren desagertzeaz gehiago jakin nahi bazen. Garai hartan, San Apolinar basilikan aurkitzen ziren mafiosoaren gorpuzkiak; 450.000 euroko donazioa egin zion aipatu basilikako obispoari bere hilotza bertan lurperatua izan zedin. Vergari apezpikua zen aipatu basilikako arduradun nagusia, iragan as-teko hezurren aurkikuntzarekin harreman zuzena duen prelatua.

Bada, ireki zuten hilobia 2012ko maiatzean, Italiaren historiako pasarte ilun bat itxi asmoz. Bertan zen Renatino, eta berarekin batera ziren ehunka hezur; 400 kaxa behar izan zituzten sarkofago barruan zegoen guztia gordetze-ko. Alabaina, ez zen 15 urteko neskatoaren aztarnarik agertu. Zein da, baina, San Apolinarreko apezpikuaren eta iragan as-tean aurkitu zituzten hezurren arteko harremana? Kontua da Villa Georgina, hezurak topatu zituzten eraikina, Vergari gotzainaren lantoki izan zela, eta, 1983an, Emanuela Orlandi desagertu zen urtean, erreformak egin zituztela bertan. 35 urteren ostean, 15 urteko neskatoarenak izango ote dira Villa Georgina topatutako hezur-rak? Ala Italiaren historiako bahiketa mediatikoenaren kapitulu berri baten aurrean baina ez gaude?

xantaia bat izan zen bahiketa-ren arrazoi nagusia; Egoitza Santuari adierazi nahi zioten paktuak errespetatu eta dirua itzuli behar zietela. Baina zer diruren inguruan ari gara?

Maglianako Bandaren diru sarrerak astronomikoak ziren garai haietan. Zuten guztia gastatu ezin eta inbertsioetara jo behar izan zuten, eta hori Ambrosiano Bankuaren bidez egin zuten, hau da, Vatikanoko Bankua akziodun nagusi zuen entitatearen bidez. Ambrosiano Bankuak, baina, behea jo zuen urte batzuen buruan, eta harekin batera joan ziren Maglianako Bandaren inbertsioak ere. Kasua jarraitu zuten adituen arabera, 300.000 milioi dolar inguru galdu ziren Ambrosiano Bankua erortzearekin batera; bankuko zuzendari Roberto Calvi urkatuta agertu zen Londresko zubi batean hondoa gertu ikusi eta bere bezero nagusiak zein ziren argitzearekin mehatxu egin eta gutxira. Minardiren azken teo-

MIGRATZAILEEN «KARABANA» SAN CRISTOBAL DE LAS CASASETIK IKUSITA

Ostaizka SERRA

San Cristobal de las Casasen, Chiapasen, dagoen Junax Boluntarioen Zentroan kudeaketa lanetan aritzen da Ostaizka Serra. Uneotan, Erdialdeko Amerikako migratzaileen «karabanak» dituen beharren jarraipena egiten duten behatzaileekin ari da. Mexikotik idatzi du ondorengo kronika.

Bi aste baino gehiago dira Erdialdeko Amerika eta Mexiko hizpide direla ezaugarri bereziak dituen mugimendu migratzailearen lekuko izaten ari direla eta. Lau dira jada Chiapas zeharkatu duten edo oraindik zeharkatzen ari diren migratzaileen «karabanak». Gertatzen ari denak iparraldera heltzea helburu duten migratzaileen fenomenoaren atzean dauden erro sakonak azaleratu ditu; duintasuna bidaide, beraien herrialdeetan bizi duten pobrezia eta indarkeria atzean utzi nahi dute migratzaileek; norbanakoen, familien, komunitateen eta herrien segurtasuna eta bizi kalitate aukerak ozen aldarrikatzen dituzte behartutako ekimen honekin.

Ciudad Hidalgo, Mexikoko mugako lehen hirira, iritsi zen lehendabiziko behatzaile brigadaren arabera, exodo honetan 8.000 pertsona parte hartzen ari dira. Migratzaileen %30 haurrak eta nerabeak dira; emakumeekin batera, migratzaile guztien %50 baino gehiago dira.

Mugimendu migratzaileok aurreikuspen politiko eta instituzional guztiak gainditu dituzte, Chiapaseko behatzaile taldeen hitzetan. Migratzaileei laguntza emateko asmoz, bidean zeharreko herri eta hirietan brigadak antolatu dira; elizetako kideak, gizarte zibileko ordezkariak, gobernuz kanpoko erakundeetako boluntarioak, herrietako udalak lanez gainezka daude Chiapas osoan. Migratzaileek aurrera egin ahala, berdin gertatzen da ibiltariek igarotzen dituzten gainontzeko estatuetan ere.

Behartutako migrazioon helburua Mexikon edo Ameriketako Estatu Batuetan babesa eta ongizate integralerako aukerak lortzea da, eta migratzaileak

bidea egin ahala ari dira antolatzen. Horregatik, giza eskubideen arloan eta migratzaileekin lan egiten duten elkarre eta kolektiboek diotenez, fenomeno migratzaile honi ezin dakiok «karabana» deitu. Aurreko urteetako karabana migratzaileek agenda zehatz bat zuten, denborak eta lekuak ondo finkatuta zituzten. Exodo migratzaileon kasuan, aldiz, ez dago ez egiturarik ezta antolaketa zehatzik ere. Hala ere, esan beharra dago migratzaileek hartutako bidearen arriskuak ezagutzen dituztela, hori horrela, erabakiak egunez egun hartzen dituzte asanbladan, beharren eta gertakizunen arabera. Informazioa aldatzen doa une oro eta elkartasun elkarrekin eta gizarte zibila aldaketon erritmora antolatzen ari dira.

MATERIAL BILKETA, KEZKAK ETA BELDURRAK

Jakina da historikoki Chiapas mugimendu migratzaileen pasabide edo harrera puntua izan dela Erdialdeko Amerikako, Hego Amerikako eta Karibeko migratzaileentzat. Lurrotan pertsonen mugimenduak betidanik eman dira eta asko dira antolatuta dauden

taldeak, erakundeak, gobernuz kanpoko erakundeak, gizarte zibileko kideak. Iparralderako bidea ez da erraza: indarkeria, heriotzak, desagertpenak ohikoak dira migratzaileen artean. Gauzak horrela, bidea elkarrekin egiteak arrisku eta trabak gainditzeko laguntzen du. Baina, lurrotan babes sare indartsua izanagatik, ia 10.000 lagun beharrei erantzutea ez da erraza izaten ari. Laguntza estatutika ari da antolatzen, eta lehentasuna material biletari eman zaio (janaria, arropa, medikamentuak, haurrentzako gauzak).

Chiapaseko San Cristobal de las Casas hirian, Caritas erakundearen babesarekin bost biletak gune antolatu dira bai lehen migratzaile taldearen bai bidean datozenen beharrei erantzuteko. Gobernua ere saiatu da laguntza sarera batzen, baina exodoko kideak ez daude prest hori onartzeko; xantai arriskuen sentimendua handia da, eta orain arteko deportazioetan erabilitako indarkeriak beldurra zabaldu du taldean.

Argi dago beldur eta kezka oinarri sendoa dutela. Urriaren 19an, esate baterako, Suchiate ibaia gurutzatzeko zu-

Ameriketako Estatu Batuetako kamioi militarrak, Mexikoko mugan, Texasen, migratzaileen zain. Donald Trump presidente estatubatuarrek militarrek bidali ditu bertara, «sakratua den muga» defendatzeko aginduarekin.
John MOORE | AFP



bian, hau da, Mexiko eta Guatemalaren arteko mugan, Polizia Federalak eta Mexikoko Migrazio Institutuak bidea itxi zuten. Migratzaileak zubian harra-patuta gelditu ziren. “Karabanako” bozeramaileek diotenez, batzuek harriak jaurti zituzten Polizia zegoen tokira eta poliziek gas negar-eragilea jaurtiz erantzun zuten; zubian zeudenak inguratuta geratu ziren eta itolarri kasuak eman ziren.

Ciudad Hidalgo eta Tapachula artean, AEBetan ohikoa den bezala, bozgorailu bidez zuzendu zitzaizkien migratzaileei, beraien egoera legeztatze eskatuz; hori egin ezean legea beraien gain eroriko zen mehatxua ere zabaldu zuten, noski. Zemai horrekin hasi eta jarraitu behar izan dute bidea Erdialdeko Amerikako herritarrok.

Migratzaileen gainera jazarpena justifikatzeko, Enrique Peña Nietoren agintaritzak bere kanpaina propioa hasi zuen ibiltariak Mexikora iristean, errepresioa justifikatzeko, gizarte banatzeko, xenofobia eta arrazakeria zabaltzeko. Helburu horrekin, Erdialdeko Amerikako herritarrok bi taldetan banatu zituen: “onak” eta “txarrak”. “Migratzaile onak” lege prozesuei men egitera behartzen dituztenak dira, hau da, azkenerako deportatuak izango direnak, eta, “migratzaile txarrak”, berriz, legalitatea urratzen dutenak, hau da, desobedientziaren bidetik muga legez kanpo zeharkatzea lortuko dutenak.

Gauzak horrela, giza krisi honen aurrean Mexikoko Gobernuaren jarrera ikusita, migratzaileekin lan egiten duten erakundeek ezinbesteko ikusten dute gizarte zibilari Erdialdeko Amerikako herritarron egoera erreala azaltzea, zein den beraien herrialdeetako egoera sozioekonomikoa, segurtasun egoera. Asmoa argia da: migratzaileon hautua ulertaraztea eta mezu arrazistak eta xenofoboak gelditzea. Horretarako, babes sareak eta elkartasuna ezinbestekoak dira. Argi baitago Gobernuaren beste helburuetako bat ahalik eta pertsona gehien deportatzea dela. Horren adibide dira Polizia Federalak eta Mexikoko Migrazio Institutuak nonahi eta noiznahi ezartzen dituen miA



Mexiko Hiriko kirolgunea migratzaileei laguntza humanitarioa emateko prestatu dute. «Karabanak» parte hartzen duen emakume migratzaile bat umeekin jolasean ikus daiteke goiko argazkian. Kartoizko sehaskak eman dizkiete migratzaileei. Ondoko orrialdean, migratzaile talde bat kamioi batean igota, Puebla eta Mexiko Hiriaren arteko autobidean. Behean, Mexiko Hiriko kirolgunean atondutako kanpalekua. Alfredo ESTRELLA Guillermo ARIAS | AFP

Agintarientzat «migratzaile ona» legeari men egitera behartutakoa da, hau da, azkenerako deportatzen utziko dena, eta, «migratzaile txarra», legalitatea urratzen duena, hau da, desobeditu eta muga zeharkatzea lortzen duena

Mezu arrazistak saihesteko, migratzaileekin lan egiten duten erakundeek ezinbesteko ikusten dute gizarte zibilari bizi duten egoera erreala azaltzea, Erdialdeko Amerikako herrialdeetako egoera sozioekonomikoa ezagutaraztea

grazio kontrolak, oinarritzko giza eskubideak urratzen dituztenak.

Urriaren 22an gertatutakoa da Mexiko agintarien jokabidearen erakusle argia. “Karabanako” kideak sakabanatzen hasi ziren, osasun arrazoiengatik eta nekeagatik zenbait pertsona atzean geratu baitziren. Hori baliatuta, Ciudad Hidalgo, Tapachula eta Huixtla tartean, Polizia Federala sarekadak egiten hasi zen pertsonok atxilotu eta deportatzeko. Aste berean, Oaxacara heldutako migratzaileei bidea ixten ahalegindu zen Polizia goizaldean, nahiz eta azkenean aurrera egitea lortu zuten.

Lehenengo taldeak Mexikoko muga igaro eta hiru egunera, Poliziak 26 urteko Honduraseko gazte bat hil zuen gomazko pilota batekin Suchiate ibaian. Bigarren taldeko kidea zen, eta, berarekin batera beste 2.500 lagun zetozen. Bigarren hildakoa zen dagoeneko, kamioi batera igo nahian erorita 22 urteko beste gazte hondurastar bat hil baitzen lehenago Huixtlan. Zauritu ugari ere badira, eta ez bakarrik indar polizialen eraginez, baizik eta bidea oinez egiteak dakarren ahaleginengatik.

Zailtasunak zailtasun, Tecun Umanera hirugarren “karabana” bat heldu zen

egun berean, El Salvadorreko 300 herriarrekin. Erdialdeko Amerikako herrialdeak Chiapasen duen Enrique Azucar Hernandez kontsula, bertara gerturatu zen bere aberkideei Mexikora sartzeko modu egokiena errefuxiatu bezala sartzea zela esanez. 40 pertsonen osatutako taldeetan igaro zuten muga, taldea zatituz. Feria Mesoamericana aterpetxera eramane zituzten, berez aterpetxea dena baina talde ez estatalek gune migratoriotzat hartzen dutena.


Uneotan, lehen taldea jada Oaxacan dela, Mexiko Hirira iristeko asmoa gero eta sendoagoa da. Taldea bitan banatu dela nabarmendu behar da, batzuek argi baitute Tijuana iritsi nahi dutela, eta, beste batzuek, ordea, Mexiko Hirian gelditzea baitute buruan. Juchitanen zeudela, ibiltariak garraiatzeko prest ziren 70 autobus bildu ziren zibilien eta hainbat erakunderen eskutik, baina, Mexiko Gobernuaren presioaren ondorioz, bertan behera gelditu zen proposamena. Horrela, azaroaren 1ean Matias Romerora oinez joateko erabakia hartu zuten migratzaileek, Veracruzeko bidea hartzeko asmoz, nahiz eta bertako arriskuen jakinean egon: bahiketak, hilketak, krimen antolatua, pertsonen salerosketa... Baina oinez joateko bide errazena da, beraz, esku artean duten aukera hoberena.

Azaroaren 2an, jada Matias Romeron, antzeko proposamen bat jaso zuten migratzaileek. Miguel Angel Yunes Veracruzeko gobernadoreak 160 autobus eskaini zizkien Mexiko Hirira joateko, baina, gero, atzera egin zuen. Taldeak komunikatu bat zabaltzeko, eta Miguel Angel Yunesen jokabidearen ondorioz “karabana” are eta gehiago zatitu dela azaldu zuen; gizon gazte eta osasuntsuek aurrera eginguten dute, eta, haurrak, gazteak, zenbait emakume, familiak, osasun arazoak dituztenak, atzean geratzen dira.

Azaroaren 2an bertan, laugarren “karabana” bat heldu zen Talismaneko mugara, Suchiate ibaia zeharkatu asmoz. Bertan zeuden 30 bat polizia ezin izan zituzten 2.000 migratzaileak gelditu; batera sartu ziren hesia hautsita. Hirugarren hildakoa talde horretan

ko kidea zen; deshidratatuta hil zen 33 urteko gazte bat.

Bide luze eta oztopoz betea dute oraindik aurretik migratzaileek, baina argi dute beste aukerarik ez dutela. Egungo sistema kapitalistak babesgabe uzten ditu Erdialdeko Amerikako pobreak; enpresa transnazionalen menpe den sistema ustelak, indarkeria, miseria eta lur desjabetzeak besterik ez ditu sortzen, exodo masiboa eraginez. Jada 10.000 baino gehiago dira denok ikusteko moduan, ezkutatu gabe, iparraldera bidean Mexiko taldean oinez zeharkatzen saiatu direnak. Mexikoko Gobernu Idazkaritzaren arabera 2.934 dira errefuxiatu estatusa eskatu dutenak, mila inguru deportatu dituztenak eta beste hainbeste beraien kabuz, nekearen ondorioz, bueltatzea erabaki dutenak. Gertatzen ari dena, baina, ez da jazoera puntuala, Erdialdeko Amerikako egoera aldatzen ez den artean fenomeno areagotu besterik ez baita egingo. Elkartasuna ezinbestekoa izango da egoerari aurre egiteko. Bizitzaren aldeko apustua egin duten pertsonak besterik ez dira.





Ander Gortazar Balerdi - @derzu_uzala
Arkitektoa

Mapak (III)

Moroak gara behelaino artean?» liburuan Joseba Sarrionandiak dio geografia ez dela sekula egitasmo inozentea izan. «Mapak interes batzuen zerbitzuan egin dira, helburuak agerian utziz hemen, edo ezkutatuz han. Gauza batzuk kontatu edo irudikatu dira, beste batzuk ez kontatu ez irudikatu, eta beste batzuk desitxuratu edo asmatu egin dira. (...) Mapa bakoitzean, orainaz gainera, iragana dago. Eta etorkizuna».

Munduko mapa esaten diogun esferaren errepresentazioa adibide garbia da. Esfera bat gainazal bidimentsional batean proiektatzeko hamaika modu daude, baina bat ere ez da perfektua, arrazoi geometrikoak tarteko. Irudikapen bakoitzak du distortsio-mailaren bat, izan formari, tamainari, distantziari ala norabideei dagokionez. Proiektzio erabilienean Gerardus Marcator flandriarrarena da, 1569koa, baina ez da proiektzio inozentea inondik inora. Nabigaziorako lagungarria, herrialdeen tamainak guztiz distortsionatuak daude: Groenlandiak Afrikaren tamainakoa dirudi, egiazki hamaikaldiz txikiagoa izan arren. Oro har, ipar hemisferioa hego hemisferioa baino handiagoa ageri da, eta ipar poloa goian kokatzen badugu konbentzio kontu soil bezain ez inozente batengatik da.

1946an, Richard Buckminster Fuller arkitekto eta asmatzaileak Dymaxion mapa patentatu zuen distortsio hauek ahalik eta gehien lausotzeko asmoz. Lurra ikosaedro batean

proiektatu zuen horretarako, herrialdeen tamaina eta proportzioak modu orekatuan irudikatzen direlarik poliedroaren hogeitaurpegieta zehar. Ikosaedroa, gainera, esfera ez bezala, arazorik gabe destolestu daiteke azalera bidimentsional baten.

Dymaxion maparen bertsio zabalduek -azken finean, ikosaedro bat destolesteko modu mordo dago- urez inguraturiko kontinente bakar moduan irudikatzen du lurra, Artikoa erdian duela. Zeinen gertu ikusten diren, bat-batean, Kanada eta Errusia, Japonia eta Europa.

Itxuraz honekin guztiarekin harremanik ez duen gai bat bolo-bolo dabil azkenaldian. Berotze globalaren karietara nabigagarri bihurtzen ari da orain gutxi arte nabigaezina zen Artikoa, eta honek ondorio asko izan ditzake geopolitikoki, itsasbideei dagokionez batez ere. Gaur egun, itsas-ibilbide nagusiek Asia ekialdea, Europa eta Ameriketako Estatu Batuak lotzen dituzte, Panamako eta Suezeko kanalak erabiliz horretarako. Artikoa nabigagarria balitz, %40ko distantzia-aurrezteak lor litezke, eta, ondorioz, baita tamainako erregai eta diru-aurrezteak ere.

Buckminster Fullerren heriotzaren 35. urteurrena ospatzen dugun honetan, etorkizun oparoa aurreikusten diot Dymaxion mapari, Artikoa erdian, itsasbide berrien zerbitzuan, helburuak agerian utziz hemen. Izan ere, mapa bakoitzean, orainaz gainera, iragana dago. Mapa batzuetan, nabarmen, etorkizuna. •



Ilustrazioa: ANDER GORTAZAR BALERDI

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi Berastegi**

Estrasburgoko sorpresarik gabeko sorpresaren harira

Estrasburgok esan du “Bateragune auziko” bost mintzideek ez zutela epaiketa justu eta epaimahai inpartzialik izan. Sorpresarik gabeko sorpresa, hortaz. Kalkulu hotza, ekuazio madarikatua zegoen epaiketaren atzean: bakea zigor egin eta gerra betiereko bihurtzea, mendekuaren logikarekin eskola egin eta gure ondorengoei «hauxe da dagoena, hartu ala hartu beste aukerarik ez duzue» mezua pasatzea. Estrasburgok esan gabe ere, “Bateragune” bezalako adibideak hitzak hiztegietan bezainbat ditugu. Zein baino zein aberranteago, krudelago, bilduma makrabo ere egiteraino.

Espainiak betiereko nahiko lukeen bide mendekatia da. Amorrua bularrean biltzen uzten ez duen izugarrikeria. Militante konkretuen kontrako praktika da, bai, mugimendu baten liderren kontrakoa, baina umiliazio sistema bat ere bada, ezkerreko komunitate abertzaleari bere idealen eta indarren gaineko konfiantza kentzeko, borondate kolektibo independentista likidatzeko. Pertsona konkretuen aurkakoa da, baina gure herriaren kontrako biolentzia masibo mekanizatua ere bada. Madarikatuak izan daitezela horrela jokatzeko tenak eta beren kalkuluak! Izango al gara, baina, aski argi eta kementsu ezarri nahi duten kate hori ahalik eta azkarren puskatzeko! Euskal Herriak, betiereko gerra baten kondena baino, inperfektuenetan den bakearik inperfektuena ere merezi duelako.

Hartara, independentzia helburu, ohar azkar batzuk: lehenik nor garen ulertu eta zer nahi dugun erabaki, hori dugu abiapuntu. Ez izan beharko genukeena pentsatu. Izan ere, pentsatzen dugunak baino, edo geure buruez pentsatzen dugunak baino, garenak gidatzen ditu gure erabakiak; eta erabakitzen duguna gara, gure-gurea den bakarra gure erabakiak dira-eta.

Herririk gabe politika hilda dago. Herria, komunitatea, baina, haizeak hautsa bezala dispertsatzen ari da.

Kezkatzekoa eta alternatibak bilatzekoa da: praktikan eta imajinazioan, atomizatzen ari gara. Beldurtuago, zati txiki-txikitan banatuago gaude. Lotura, enpatia eta adeitasuna itzaltzen ari dira, eta, boterea, estatusa eta fama, balioa hartzen. Elur jausiaren arduradun sentitzen den elur malutarik ez dago. Usaindu ere egin ez diren hondamenen aurrean, hain zaila da iluntasunaren gure parte aitortzea! Euskal bizitza politikoaren berreskurapena komunitatea biziagotzetik pasatzen da, herri gogoa herri giro egitetik. Ez gobernuarena ezta merkatuarena ere ez den, eta sarri gutxietsia izan den, beste eremu hori indartzetik. Herria egitea ardatz duen kulturak beste politika bat sortzen du. Elkartasun soziala ehuntzen du, aberri libre baten gogomira proposatuz eta goratuz. Itxaropenik ez dela dirudienean,

Elur jausiaren arduradun sentitzen den elur malutarik ez dago. Usaindu ere egin ez diren hondamenen aurrean, hain zaila da iluntasunaren gure parte aitortzea!

presente egiten du. Jendeak kontrola bere esku hartzea ahalbidetzen du. Ez dago formula magikorik. Jende determinatu eta ongi antolatua behar da, lana erruz eta serio egingo duen jendea. Denok gaude interpelatuta. Denok egin dezakegu, inori baimenik eskatu gabe.

Etorkizunaren gaineko aurreikuspen positiboak urritu diren aro historiko honetan, herri mailako erabakiak hartzerik izango dugula ziurtatzeko garaia da. Oso zentzuzkoa baita pentsatzea Espainiako sistemak gero eta disfuntzionalago bihurtzen jarraituko duela, haren haustura-puntura hurbiltzeko joerak ez duela etenik izango. Puntu horretarainoko bidaian, baina, ez dugu autoan eserita soilik joaterik; bolantea esku artean hartu behar dugu. Fuerte oratu, datorrenak gutariko asko zer esan ez dakigula utziko gaitu-eta. •

ELIKADURA PROIEKTUA

Elikadura burujabetzaren gaineko jardunaldiak Laboreren eta IPESen eskutik

Zer egin dezakete herritarrek Bilbotik, elikadura burujabetza helburu izanik? Nondik eta Bilbotik, biztanle gehien biltzen dituen Euskal Herriko hirigunetik, hain zuzen. Zer egin daiteke merkataritza gune handiak jaun eta jabe diren inguruan, nekazaritza eremuaren berri argazki bidez edo gehienez as-teburuko txangoetan baino izaten ez den ingurutik? Galdera horrek gidatu ditu asteon Bilbon izan diren jardunaldiak. Erantzun bat nekazarietara harreman zuzena sortzea da, eta dagoeneko abian da hainbat lekutan, baita Bilbon bertan ere. Kontsumitzaileen eta nekazarien arteko «aliantza» horrek Labore Bilbo du izena, eta San-

JENDARTEA / Xabier Izaga Gonzalez

Elikadura sistema bertokoa, agroekologikoa eta soziala izatea aldarrikatzen duten hainbat elkarte sortu dira Euskal Herrian azken urteotan. Haietako batek, Labore Bilbok, urtebeteko ibilbidea egin du, eta, proiektua zabaltzeko asmoz, elikadura burujabetzaren gaineko jardunaldiak egin ditu IPES elkartearekin.

tutxuko Haro plazako denda bat, egoitza. Beraz, zerbait egin daitekeen konbentzimendutik harago, egiten ari den egiaztapenetik abiatu ziren joan den astearte, asteazken eta osteguneko mahai-inguruak.

Santutxuko denda horretan tokiko produktu agroekologi-

koak saltzen dituzte, eta elikadura ez dute negozio gisa ulertzen, eskubide gisa baizik. Gertuko eta kalitateko produktuak hobesten dituzte, betiere bidezko prezioan. Bidezkoa bai ekoizlearentzat bai kontsumitzailearentzat; gizartearentzat, alegia. Labore Bilbo nekazarien eta kontsumitzaileen elkartearen helburua ez da diru mozkin potolorik lortzea; bai, ordea, etekinak lortzea, kontsumitzaileentzat bezala nekazariarentzat ere. Osasuntsu jan, ekoizleari salneurri egokian ordainduta, salneurri justuan, alegia.

Ia urtebete bete duen ekimen hori denda bat baino gehiago da. Arrandiarik gabe eta betiere

elikadura burujabetza ipar, ekoizlearen eta kontsumitzaileen arteko harreman zuzena sustatu ez ezik, praktikan jarri ere egin du. Horregatik ez da ohiko denda, gizarte proiektua ere bada.

IPESSEKIKO ELKARLANA

Labore Bilbok urtebetetsu baino ez badu ere, proiektua ez zen joan den urteko abenduan sortu, ezta bat-batean ere, aspaldiko hausnarketa baten ondorio baita. Amaitu ez den hausnarketa, proiektua gartzarekin batera haren gaineko gogoeta etengabea baita. Horren adibide dira aste honetan izan diren jardunaldiak, Labore Bilbok berak eta IPES elkarteak antolatuta.

IPES elkarteak ezaguna da, eta ibilbide luzea du. 1977tik euskal herritarrek prestatzeko materialak landu izan ditu, herritarrek «jantzen» jardun du, euren hitzetan. Berrogei urte pasa eman dute, eta jarraitzen dute, «prestatzeko jantzigintza herritarra» antolatzen. Norberaren ingurunea ezagutu eta eraldatzeko, edozein arlotan, guztientzako prestakuntza; diotenez, aniztasunak ematen baitie «jantzien neurria». Elkarteak zabalduz joan da, baita lan egiteko modua berrituz ere.

IPESen egoitzan hiru langile finko daude, baina jende ugari mugitzen da bertan batetik bestera, hirurogei kolaboratzaile inguru baititu hainbat lantalde eta saretan; horiez gain, dozenaka eragile zenbait proiektutan elkarlanean. Bilbo-ko egoitza horretako artxibategian «perla andana» topa daiteke, eta orain digitalizazio eta zabaltze lanetan dabilta burubelarri.

Askotariko gaiak landu dituzte berrogei urteotan, euskal herritarren prestakuntza eta eus-

Labore Bilbo, Santutxun.
Marisol RAMIREZ | FOKU



kal kultura sustatzea xede: euskal gaiak, emakumea, ezker pentsamendua, nazioarte...

PARTEKATUTAKO KEZKA

IPES elkartearen kezketako bat elikadura burujabetzaren gainekoa da; kezka, beraz, Labore Bilborekin partekatzen du. Euskal Herriko lehen sektorearen egoera giltzarri da: «Azalera handiko denden kateetan kontsumitzaileok ordaintzen dugunaren parte txiki bat baino ez da itzultzen lurra lantzen dutenen eskuetara». Multinazionalen merkatu sarea ikaragarri indartu da zazpi herrialdeetan, denda txikien kalterako, saltoki handiak erraztasun guztiak dituzten bitartean. Euskal Herriko janariaren %90 kanpotik dator, eta janariaren kontrola daramaten erakundeetako arduradunek harreman zuzena dute hainbat multinazionalekin. Horiek horrela, bi elkarrekin bat egin dute gero eta garrantzi handiagoa duen kontu baten inguruan lan egiteko, arazoak aztertu eta irtenbideak bilatzeko, baita gizartera zabaltzeko ere, guztiei parte hartzea eskainiz, gizarteari eragiten dion arazoa baita eta gizarteak berak eman behar baitio irtenbidea.

JARDUNALDIAK

Labore eta IPES elkarrekin orain dela bi urte jardunaldi batzuk antolatu zituzten, Laboreren sorrera laguntzeko, hain zuzen ere, eta oso balorazio positiboa egin zuten. Elkarlan haren segida lirateke, beraz, «Elikadura burujabetza: zer egin dezakegu herritarrok Bilbotik?» lelopean antolatutako jardunaldiak. Alternatiba izan nahi duen proiektu bat bultzatu nahi dute, eta horretarako hirian elikadura burujabetzaren kontzientzia-zioa areagotu eta sakondu beharra sumatu dute.



Izan ere, jardunaldiok gogoe-ta pizteko antolatu dituzte. Santutxun ez ezik, Bilboko beste auzoetan ere. «Hiria nolabait urrun dago baserrietatik, baina, beste hainbat tokirekin alderatuta, euskal hiriak ez daude horren urrun, eta Bilboko jendea herrietara joaten da, herrietako jendea Bilbora joaten den bezala, eta kultur zentzuan ere hurbil daude», diotsa GAUR8ri Miren Saez Labore Bilboko eta Etxaldeko Emakumeak taldeko kide eta jardunaldien antolatzaitakoak. Hurbiltasun hori baliatu eta sendotzeko ideiatik sortu zen Labore Bilbo, nekazarien eta kontsumitzaileen elkar-te gisa. «Denda itxurako zerbitzu bat antolatu zen, denda hutsa ez ezik, elikadura burujabetza bultzatzeko proiektua ere badena, eta, azken batean, beste eredu bat ardatz duena».

Jardunaldiak asteartean hasi ziren, Kafe Antzokian. Ane Zabala moderatzailearen gidaritzapean Malu Egiluz Etxaldeko

IPESek eta Labore Bilbok antolatutako mahai-inguruetako bat, Kafe Antzokian.
Marisol RAMIREZ | FOKU

Laborek, betiere elikadura burujabetza ipar, ekoizlearen eta kontsumitzailearen arteko harreman zuzena sustatu ez ezik, praktikan jarri ere egin du. Gizarte proiektua ere bada

«Euskal Herriko janariaren %90 kanpotik dator, eta janariaren kontrola daramaten erakundeetako arduradunek harreman zuzena dute hainbat multinazionalekin»

Emakumeak taldeko kidea, Unai Aranguren, EHNE-Via Campesinakoa eta Iñigo Bilbao ENBA Euskal Nekazarien Bata-sunekoak heldu zioten lehen gaiari: «Nekazarien eta kontsumitzaileen arteko aliantzak nola bultzatu?».

EKOIZLEEN LAN BALDINTZA DUINAK

Esan zutenez, lehenik baserri-tarren egoera ezagutu beharra dago, haien beharrianak, egoera hori hobetzeko. Elikadura burujabetza sustatzea euren-tzat herri bakoitzak nahi duen

elikadura sistema definitzeko eskubidea izatea da, eta sistema hori abian jartzeko behar diren tresna guztiak eskura izatea. Laborek aldarrikatzen duen elikadura sistema bertokoa, agroekologikoa eta soziala da. Hiru hitzotan laburbiltzen dute nahi duten ereduak. Bertokoa, hemengo produktuak bultzatzen dituztelako, baina ez edozein produktu, baserritarrek, arrantzaleek edo artzainek egingakoak baizik, ekoizle txikiek; izan ere, ereduak jasangarria izan behar du, ingurumena errespetatzen duena, dibertsifikatua, eta naturaren erritmoaren araberakoa. Eredu agroekologikoa. Bertoko produkzioa sustatu nahi dute bertoko baserritarren lan baldintzak defendatuz, haien papera aitortuz, «haiek ekoizten dutena jango dugulako, eta hori gure bizitzaren oinarrian dago. Arrantzaleek, baserritarrek, artzainek zaintzen dute jendearen elikadura, eta, beraz, bizitza. Eta horrelako

eredu batean ekoizten dutenean, konfiantza ematen digute». Kontsumitzailearen osasuna zaintzeko ez ezik, gure kulturen eragile gisa eta ingurumenaren zaintzaile gisa ere beharrezkoak direla uste dute, horregatik aldarrikatzen dute ekoizle horien lan duina.

Lan baldintza horiek duinagoak izanda, haien garrantzia aitortuta, erakargarriagoa izango litzateke jardun hori, gazte jende gehiagok ekingo lioke eta hain beharrezkoak diren ekoizleen kopurua handiagoa izango litzateke, behar den moduan. Izan ere, gogorarazi zutenez, Euskal Herrian jaten denaren oso ehuneko txikia da hemen ekoizitakoa.

Emakumeek sostengatu dute, isilean, baserri txikia. Behean, lehen mahai inguruko parte hartzaileak: Unai Aranguren, Malu Egiluz, Ane Zabala moderatzailea eta Iñigo Bilbao.
Jon URBE eta Marisol RAMIREZ | FOKU



EMAKUMEA, BASERRIAREN SOSTENGU

Hain zuzen ere, bigarren mahai-inguruko gaiko protagonistak gazteak eta emakumeak izan ziren, nekazaritzaren etorkizunaren bermatzaile gisa: “Gazteak eta emakumeak, nekazaritzaren etorkizuna”. Nekazaritzaren eta kontsumo ohituren aurrean zein den gazteen eta emakumeen papera aztertu zuten Indautxuko Elcano kaleko udal aretoan Alazne Intxauspe, Amets Ladislao eta Amaia Lekuek. Horiek ere baldintza duinagoak lortu beharra mahaigaineratu zuten: bidezko salneurriak eta behar dituzten lurak eta tresnak eskuratzeko aukera. Horretarako politika publikoak bultzatu beharra dagoela esan zuten, Euskal Herrian behar den guztia ekoizteko lurrik ez baitago, industriara begirako gehiegizko landaketak edo garraio azpiegiturak direla eta. Bertoko elikadura sistema nahi bada, hori aztertu egin beharra dagoela aipatu zuten.

Emakumeari dagokionez, Amaia Lekuek gogorarazi zuen emakumeak sostengatu duela



euskal baserri txikia, bertoko praktikak erabiliz, bere isilpeko lanarekin. Hiru hizlariak beren bizipenak partekatu zituzten, eta esan zutenez, kontuan izan beharra dago baserriko emakumearen egoera. Oro har baserritarrek zailtasun handiak

dauzkate eta emakumeen zailtasunak bikoiztuta daude, baina baita ikusezin bihurtuak ere. Badira ekoizteko proiektuak abiatzen dituzten emakumeak, baina, ohiko oztopoez gainera, gizate patriarkalak eurei jarritzen dizkienak ere topatzen di-

tuzte. Nekazaritza sektorea gizonena izan dela esan zuten, eta emakumeek ere lan egin arren, gizonek hartu izan dituztela beti erabakiak. Horra, bada, emakume horien beste erronka bat, erabakiguneetan egotea, alegia.

Hirugarren mahai ingurua gure edizioa ixteko garaian izan zen; edonola ere, Miren Sanz Laboreko kideak dioskunez, Marie Cristine Elizondo eta Arturo Villanuevak Ipar Urruñako esperientziak partekatzeak ziren Santutxuko Labore dendan. “Ipar Euskal Herriko aire freskoak ezagutzen” lelopean elikadura burujabetza ikuspegi ezberdinetatik aztertzeak asmoa zuten. «Iparraldeko errealitatea desberdina da; esate baterako, politika publikoei dagokienez», dio Mirenek.

URTEBETE ETA «OSO POZIK»

Santutxuko denda zabaldu zutenetik urtebete betetzear, haren ibilbidearen balorazioa eskatu diogu Miren Saezi. «Oso pozik gaude», dio galdera entzun orduko, «bazkideen parte hartzea gero eta sendoagoa delako, gero eta jende gehiagok parte hartzen duelako». Laborek aldarrikatzen duen elikadura sistema, esan bezala, hiru hitzek laburbiltzen dute: bertokoa, agroekologikoa eta

Alternatiba izan nahi duen proiektua bultzatu nahi dute IPESek eta Laborek, eta, horretarako, elikadura burujabetzaren kontzientziazioa areagotu eta sakondu nahi dute hirian

Badira ekoizteko proiektuak abiatzen dituzten emakumeak, baina baserritarren ohiko oztopoez gainera, gizarte patriarkalak eurei jartzen dizkienak ere topatzen dituzte

soziala, eta azken horretan kokatzen dute ekoizleen egoera. Labore elkarte bat da, denda bat, baina proiektua sakonagoa baita, «harago doa». Denda abian jartzeak lan handia eskatu zien, eta orain oso pozik daude gero eta produktu gehiago dauzkatelako, 800etik gora, hain zuzen, eta baita gero eta hornitzaile gehiago, 100etik gora. Bost bitartekari baino ez daude, gainerako guztiak ekoizlearen eta kontsumitzailearen arteko harreman zuzenak dira. «Lorpen polita da, horixe zen gure helburua, ekoizle txikien produktuak hirira ekartzea. Jakina, hori lan handia da, batez ere hasieran», jarraitu du Mirenek.

Produktu horien erdiak baino gehiago Bizkaikoak dira, eta gehien-gehienak Euskal Herrikoak. Dagoeneko bi langile dauzkate, eta luze gabe beste bat hartzeko asmoa dute.

Bestetik, bazkideen lantaldeak sortzen ari dira, eta, Mirenek dioenez, badute «borondatezko esfortzu txikia» non egin. Komunikazio lantaldea harremanak sortzeaz arduratzen da, eta alde soziala dinamizatzeaz. Azken hilabeteotan, astero hiltzaldi bat antolatzen hasi dira, eta laster buletin bat abian jartzeko asmoa dute, informazioa zabaltzeko, esate baterako zein diren sasoiko produktuak eta haien onurak azalduz, kozinatze modu ezberdinak erakusten dituzten errezetak eskainiz...

Dastatzeak ere egiten dituzte, Laboreko produktuak eta ekoizleak ezagutarazteko. Datorren urtean bisitak antolatu nahi dituzte etxaldeetan, produktuak eta ekoizleak bertatik bertara ezagutzeko.

Ia 300 bazkide hasi ziren Bilboko Laboren, eta, Mirenek dioenez, espero baino polikiago emendatzen doa kopuru hori.

Orain 420 inguru dira, eta gehiago izatea dute erronketako bat. Horixe da aste honetako jardunaldiak antolatzearen motiboetako bat, Santutxutik kanpoko jendea ere proiektura gerturatzeko. Izan ere, ez dago erosketak egiteko beste auzo batzuetara joateko ohiturarik. Hori kontuan izanda, beste alternatiba batzuk pentsatzen ari dira gainerako auzoetan presentzia handiagoa izateko.

BAZKIDEAK ERE, ASEBETERIK

Uda baino lehen nolabaiteko inkesta egin zuten bazkideen artean, haien aurreikuspenak

800 produktutik gora eskaintzen ditu Labore Bilbok.
Marisol RAMIREZ | FOKU

bete diren jakiteko, eta oro har jendea oso pozik agertu zen. Mirenek dioenez, nabari da pozik daudela, biltzarretan jende askok parte hartzen baitu. Bertan hartzen dituzte erabaki nagusiak. Oso garrantzitsua omen da parte hartze horri eustea, proiektuaren alde guztiak landu behar dituztelako. Nabaritzen dutela dio, halaber, bazkideek argi daukatela zein den helburua: norbere erosketan erabakitze aukera izatea, zer eta nola erosi nahi duten.

Hasieran esfortzu nagusia denda abian jartzea zen, orain alde soziala garatzeko pilatzen dute indarra. Beren ikuspuntua partekatzen dutenekin aliantzak sortzea ere oso garrantzitsua dela dio. REASEkin harremanetan dira, ekonomia sozial aldatzailea bultzatzeko, baita

Fiare Banku Etikoarekin edo, jakina, IPES elkartearekin ere.

Antzeko proiektuekiko harremanei ere eusten diete; esate baterako, garraioa elkarrekin antolatze, ikasitakoa partekatze: «Bidean ikasten joaten zara». Hala, Labore Oarso, Labore Txingudi edo Landarerekin ere harremanetan dira. Baita Errigorarekin ere, eta ekimen nafar horren saskiak Labore dendan egoten dira ikusgai. Halaber, agroekologia eta elikadura burujabetza bultzatzen dituzten baserritarren zenbait sindikaturekin ere lan egiten dute, eta horiek proiektuan parte hartzen dute. Badute baserritarren batzorde bat ekoizpenarekin eta prezioekin zerikusia duten erabakiak hartzeko.

Labore. Denda, gizarte proiektua, bizi eredu.





Alai
ZUBIMENDI

iRRITZIA:



FRANCOREN ARRASTOEKIN
ZER EGIN EZ DAKITELA?

NIK BADAUKAT SOLUZIO
ERRAZA...

A BAI?
ETA ZER EGINGO HUK
BA HAIEKIN?

KOMUN-ZULOKO ARRASTOEKIN
EGINGO NUKEEN GAUZA BERA...
ESKUBILLA ONDO PASA TA
BONBARI TIRA!

HIK DITUK SOLUZIOAK
FRANKO...

HOIXE.

Alai Zubimendi 18



Luis JAUREGIALTZO | FOKU



IKUSMIRA

FISKALA ETA INTERES OROKORRA

Fiskalak zorrotz lan egiten omen du Legea betetzen dela ziurtatzeko. Legea herritarren borondatearen emaitza omen da, haiek aukeratutako ordezkariak bultzatutakoa omen delako. Ondorioz, fiskalak interes sozialaren alde egin behar du lan, herritar guztien interesaren alde, jendarte oso baten alde, eta ez pertsona konketu baten edo batzuen mesedetan. Pentsatzen nuen halako zer-bait topatuko nuela definizio ofizialean.

Hitz potolo eta ofizialak baino askoz argigarriagoak dira, baina, Finaren eta Manuren aurpegiak. Fiskalaren azken hitzak entzun ondoren, ez dakit nondik atera zuten aulkitik altxatu eta epaitegitik oinez ateratzeko indarra. Egia esan, semea hil zutenetik ez dakit nondik ateratzen duten egunero ohetik altxatzeko indarra. Pentsatzekoa da justizia egin nahiak altxatu dituela, nahiz eta hankak eta arima arrastaka eraman.

Lehen ere bagenekien fiskalek babestu ohi duten interes orokor hori ez dela orokorra, batzuk beti aterpe horretatik kanpo gertatzen direla, injustiziaz blai. Bagenekien, baina hala ere mina egiten du, barren-barrenean. Amagoia Mujika Telleria

ARNASTU BEHOBIA

Behobia-Donostia,
biriketako minbiziaren
oholtza eta arnasmune

 **OSASUNA** / Maddi Txintxurreta Agirregabiria

Biriketako minbiziak eta kirolak kontzeptu bateraezinak diruditen arren, biharko Behobia-Donostia lasterketan horrela ez dela frogatuko da. Koldo Goenagak, Walfrido Garciak eta Moises Perezek, hirurak dira biriketako minbizi gaitututakoak, lasterketa korrituko dute Arnastu Behobia ekimenaren baitan.

Biriketako minbizi gaitz traidorea da, lehenengo faseetan isilpean pasatzen baita ageriko sintomarik gabe eta, batzuetan, beranduegi da konturatu orduko. Minbizi mota guztietan hilkortasun tasa handiena du biriketakoak, bai gizonezkoetan eta baita emakumeetan ere. Kasu gehienak, gainera, ekidingarriak dira, %85 tabakismoak eraginak baitira. Baina, panoramak etsigarria dirudien arren, biriketako minbizi ere gaitutu daiteke; are, sendatu ostean Behobia-Donostia lasterketa korritzea ere posible da.

Horixe bera frogatu asmo du Arnastu Behobia ekimenak. Bihar egingo den Behobia-Donostia lasterketan biriketako minbizi gaitutu duten hiru lagunek hartuko dute parte; Walfrido Garciak, Koldo Goenagak eta Moises Perezek. Otsailean AEACaPen (Biriketako Minbiziak Kaltetutakoen Espainiako Elkarte) eskutitz bat jaso zuten Behobian parte hartzeko gonbidapenarekin, eta bertan izango dira bihar.

Beraiekin batera korrika egingo dute senide eta lagunek, gaixo zeuden garaian alboan izan zituzten berdinek. Orobat, ekimena babestu duten 250 pertsona inguruk Arnastu Behobia kanpainako kamiseta urdina jantzi eta lasterketaren 20 kilometroak elkarrekin egingo dituzte.

AEACaPekin batera, Arnastu Behobia kanpaina Donostial-

dea Erakunde Sanitario Integratuak, Gipuzkoako Diputazioak eta Fortuna Kirol Elkarrekin antolatu dute. Bernard Gaspar AEACaPeko presidentearen esanetan, ekimenak bi xede nagusi ditu: biriketako minbizi «ikusgarri» bihurtzea eta gaitza pairatzen ari direnei «esperantza ematea». «Biriketako minbiziak bizirau-pen tasa oso baxua dauka, baina berau sendatzeko tratamenduak garatzen ari dira. Horregatik korrituko dute hiru pazienteek, diagnostikatu berri dauden gaixoei esperantza emateko», azaldu du Gasparrek. Bestalde, bizimodu osasungarri bat sustatu nahi dute, «kirola bultzatuz eta tabakoa alde batera utzita».

Jon Zabaleta Donostiako ospitaleko zirujau torazikoa ere buru-belarri aritu da ekimena antolatzen. Kontatu du minbizi diagnostikatu berri dieten gaixo asko «beldur askorekin» agertzen direla kontsultara, eta esan du bihar erakutsiko dutela gaitzaren ostean «bizi-

Iazko Behobia-Donostia lasterketako irudia, korrikalariak helmugara iristen.
Juan Carlos RUIZ | FOKU





molde on bat izatea posible dela».

Gaixotasunaren ikusgarritasuna oso urria dela baietsi du Zabaletak. Urrian, bularreko minbiziaren hilabetea, kanpaina ugari jartzen dira martxan, baina azaroan, biriketako minbiziaren hilabetea, «ematen du gaitza ez dela existitzen»: «Ikusita zenbat heriotza sortzen dituen eta zer-nolako eragina duen gizartean, harrigarria da zer gutxi hitz egiten den honetaz».

EMAKUMEAK ETA MINBIZIA

Aurten, lehen aldiz, emakume gehien hil dituen minbizia biriketako izan da, eta errudun nagusia tabakoa da. «Duela urte batzuk ia ez genituen ikusten biriketako minbizidun emakumeak, ez zutelako askok erretzen. Baina, AEBetako modari jarraiki, emakumeak erretzen hasi ziren, eta uste genuen 2020an joko zuela goia emakumeen heriotza tasak,

Donostian urriaren 20an egindako entrenamendu solidarioaren irudia. 180 pertsonak hartu zuten parte eta 6.000 euro bildu zituzten.

AEACaP

baina ez, 2018an jo du goia», azaldu du Zabaletak. «Berri txarrak dira», zirujauaren esanetan. Are okerragoak, jakinda diagnostikatutako biriketako minbizien %20 bakarrik operatu daitezkeela.

ELKARTASUN DOINUAK

Kanpainari babesa emateko, espainiar Estatuko lau elkarte zientifiko «garrantzitsuenak» elkartu dira, eta hori «oso positiboa» dela nabarmendu du Zabaletak: Sect, Separ, Seom eta Seor dira, hurrenez hurren, kirurgian, pneumologian, kimioterapien eta erradioterapien espezializatutakoak.

Bestalde, Arnastu Behobia ekimenak dirua bildu du bide ezberdinetatik, eta bildutakoa AEACaPen zerbitzuak zabaltzera eta biriketako minbiziaren ikerketara bideratuko da. Besteak beste, lasterketan janzteko kamisetak saldu dituzte, eta ekimena babestuz proban parte hartuko duten gutxienez

250 lagunek olatu urdin bat osatuko dute minbizi mota honen ikusgarritasunaren alde.

Horrez gain, urriaren 20an Entrenamendu Solidarioa egin zen Donostian, non 180 korrikalarik Alderdi Ederretik Haizearen Orrazirainoko bidea egin baitzuten. Medtronik material kirurgikoko enpresak bost euro eman zituen pertsonako eta kilometroko eta Eibar Kirol Elkartek, berriz, euro bat. Guztira, 6.000 euro bildu zituzten egun hartan.

Hala ere, sona gehien izan duen ekimena Alex Ubago abeslariak martxan jarritakoa da. Biriketako minbiziaren aurkako borrokari soinu banda jarri dio, «Solo si lo hacemos juntos» abestiarekin, zeinaren euskarazko bertsioa, «Zure hauspoa izango gara», Zuriñe Hildagok abesten baituen. Urtarrilaren 31n Ubagok AEACaPen aldeko kontzertua emango du Donostian.

ILUSIOA AKUILU, BIRIKA BAKARREKIN KORRIKA

Moises Perezi duela bi urte antzeman zioten biriketako minbizia, 36 urte zituelarik, kasualitatez, beste kontu baterako erradiografia bat egin ziotenean. Gutxira operatu egin zuten, eta ezkerreko birika erauzi zioten, osorik. Mantentzen duen birika, baina, arnas bete dauka, eta Behobia-Donostia korrituko du bihar, zazpi hilabeteko entrenamendu zorrotza egin ostean.

«Minbiziaren lehen sintoma antzematen dizutenetik operatzen zaituzten arte bi hilabete eskas pasatzen dira. Hain azkar igarotzen da dena, ezen ia ez baituzu horretan pentsatzeko denborarik», azaldu du Perezek.

Ebakuntzaren ostean, kimioterapia, erradioterapia eta bestelako tratamenduak jaso zituen, berak esaten duen gisara, «pack osoa»: «Hortik aurrera, bizitza ezberdin bat hasi nuen, erritmo lasaiagoarekin, beste filosofia batekin».

Otsailean Behobia-Donostian parte hartzeko gonbidapena jaso aurretik, Perezek ez zuen imajinatu ere egiten berriro kirola egin ahal izango zuenik. «Ilusioz eta lehen egiten nituen gauzak egiten saiatzeko gogoz esan nion baietz erronkari», azaldu du. Bihar lasterketan izango da, lagunak eta senideek lagunduta.



Gorka Zozaia - @zotz_
Kimikaria

Sofiaren IA

Errudimentarioa da Sofiaren Inteligentzia Artifiziala. Aldez aurretik emaniko erantzunekin eta hodeiko erreferentziekin erantzun die Madrilen se villanaz jantzita aurkeztu berri duten androideak kazetarien galderei.

Apika Audrey Hepburnengan inspiratuta diseinaturiko bere aurpegi mugikorra –62 espresio egiteko gai dena– da androide berri honen ekarpenik deigarriena. Edo pasaportearen lehen androidea izatearen zailtasunak ohorea eskaini izana Saudi Arabiak. Ni neu, giza adimenaren duen –eman dioten– iritziarekin gelditzen naiz; elkar osagarritzen diren gaitasun ezberdineko adimen artifizialak ei gara gizakiak.

Gustatu zait, lehen kolpe batean, gurea ere Inteligentzia Artifiziala de-

la baieztatzea. Filosofia berekoa naitzela esango nuke, gure adimenak, ingurunea interpretatu, aurrean eta eraldatzeko gaitasunak, guk geuk sortuak izan baitira, gizateriaren ibilian. Eta alderantziz, artifiziala deritzogun adimena, makinena, gure adimenaren ezagutzarekin batera garatu da, eta, gaur egun, zutabe honetan maiz aipatu dudana Rafael Yusteren hipotesiaren baitan, guztiz bat eginda proiektatzen diren garapen esparruak dira. Gustatu zait, beraz, Sofia hori, eta gustatu zait ere gaitasun ezberdineko adimen horien osagarritasuna aipatu izana, kointzidentea iruditu baitzait aktualitate zientifikoa izan den beste berri batekin. PNASen argitaratu berri denez, ohiko konpetentziaren ideologiaren aurka, gutxienez duela 200.000 urtetik zaintzen dituzten gizakiak “ezohiko gorputzekin” -ehizara-

ko ezgai, aniztasun funtzionalarekin– jaiotako kideak.

Gaur egun, tamalez, elkar osagarritasuna baino, konpetentzia eta elkarri mokoka aritzea dira nagusi gure Inteligentzia Artifizialen artean. Errealismo kapitalistan ari dira gure adimenak igerian eta pentsatu nahi dut hori dela errealitatea eraldatzeko borrokan ari garenon artean arrakalak eragiten ari den oinarritzko indarra. Eta hori pentsatu nahi dut, ezen eta bestela ezin baitut ulertu herri mugimenduan bizitzen ari garen tragedia. Indarren atomizazioa nahikoa ez eta haustura markoak indartu egiten ditugu etengabe. Entzun izan dut Ikasle Abertzaleak taldeak aita hiltzeko beharra duela, eta izan liteke azalpen bat, baina nire ikuspegitik gehiago izan da umezurtz gelditu dela *Izquierda Abertzalearen* aldaketa urteotan. Nik neuk ez dut nire burua islatuta ikusten IA hauetan, eta ikaragarri ari zait kostatzen lerrook idaztea, batzuekin zein besteekin harremanetan jarraitzen baitut, eta, ikusten, askozaz gehiago dela batzen gaituena banatzen gaituena baino.

IAko kide ohi bezala, herri bateko institutuan gertatu denak ematen dit min gehien, ikasle militante taldeak, IA bien arteko talka ulergaitz eta bortitzean, talde autonomoa egitea erabaki duenean. Askapen prozesuaren bermea herri aktibazioa eta indar metaketa diren baieztapena da gelditzen zaidan ziurtasun bakanetakoa, eta horri eutsi nahi diot nik, gaitasun ezberdinetako Inteligentzia Artifizial ororen arteko osagarritasunean, beti aurrera! •



Gustatu zait, lehen kolpe batean, gurea ere Inteligentzia Artifiziala dela baieztatzea. GAUR8

{ koaderno } Iker Barandiaran

Jarrera hilezkorra

Ez naiz inoiz mitozalea izan, ez dut inor beste inoren gainetik irudikatzen. Seguruenik arrazoi horregatik aitortu behar dut RIP taldearen inguruan bizi izan ditudan pasarte guztiek erabateko poztasuna eman didatela; hala bizi ditut oraindik ere.

Bizitzan ikusi dudana lehen kontzertua, gogoan dudana behintzat, RIP taldearena izan zen. Gordinak, baina gure parekoak ziren, ez gehiago eta ez gutxiago. Nera-bezaroan, ekaineko ostegun batean, jukutria batzuen bitartez gurasoei bizkar eginda ikusi ahal izan nuen taldea zuzenean. Pentsa, gerora, zenbat kontzertu ikusi eta disfrutatu ditudan eta zelako pisua duen musikak nire bizitzan.

Musikazale porrokatua izanda, RIP askotan agertu izan da parean, batu ditut taldearen bueltan dozenaka pasarte gogoangarri, eta ezagutu dut, taldekideez gain, inguruko jende ikaragarri asko ere. Horixe baita garrantzitsuena. “Putz” aldizkaria egiten genuen garaian Karlos *Mahoma* abeslariari elkarriketa zabala egin nion, eta plazera izan zen bere umiltasun, gertutasun eta izateko modua partekatu eta idatziz jasotzea. Bera hil ondoren, “Hamar elkarriketa” liburuan ere gelditu zen jasota haren lekukotasuna.

Jakina, latzak izan ziren Portu, Karlos eta, zer esanik ez, Julen heriotzak, baina hirurek bizi artean sentsazio onenak transmititu zizkiguten, eta ezagutu genituenok hala gogoratuko ditugu beti. Taldeari buruzko dokumentala egiterakoan harreman estua izan nuen Jul eta Txerra Bolinaga anaiekin eta, gainera, proiektuak forma hartu bitartean bizi izan zituzten urduritasun, lotsa eta poztasunen lekuko izan nintzen. Horregatik bakarrik merezi izan zuen lan erraldoi hura gauzatzak.

Tarteka hainbat proiektutan aritu izan naiz Bolinagatarrekin, beti umil, beti apal, beti egiazko. Horien artean ere oso-oso bereziak izan ziren Jul hil zenean

bere alde antolatu genituen bi ekitaldiak: bata urgentziakoa, xumea eta erabat sobrioa; eta bestea musika, rockeroa eta jai girokoa, bere eta gure gustura. Bi ekitaldi horien parte izatea itzela izan zen: musikari izatek at pertsona moduan, lagun moduan, han eta hemen lortutako errespetua eta hurbiltasuna –berak bezala, gainontzeko kideek ere– arnastea eta bizi izatea. Lehena, herri oso baten keinua, lekukotasuna. Eta bigarrena atzoko, gaurko eta biharko musikari eta musikazaleen jai erraldoia. Ezinezkoa ez, baina ia errepikaezina izango da berriro Julhne27 jaialdirako batutako jentilajea eta tonaka maitasun batzea. Parte hartu zuten musikari askok azaldu bezala, aurretikako entseguetan arituta jada pozarren zeuden.

Orain argitara eman dute RIP taldeari buruzko lehen liburua, “Larga vida a RIP” izeneko. Gertutasun, apaltasun eta maitasun horrek kutsatuta, Kataluniako

«Larga vida a RIP» liburuaren proiektuan parte hartu dugu gogo biziz, taldekide zirenek eta punka ulertzeko modu egiazkoa, apala eta eraikitzailea zuen taldeak hala eskatzen digutelako

bi gaztek bi urte pasa dituzte musu truk Arrasateko punk kuadrilla honen inguruan elkarriketak egiten, taldearen historia ordenatu eta paperean jartzen. Emaizta? Ezin merkeago saltzen den liburutzar ezin osatuagoa.

Proiektu horretan ere parte hartu dugu gogo biziz, taldekide zirenek eta punka ulertzeko modu egiazkoa, apala eta eraikitzailea zuen taldeak hala eskatzen digutelako; eta liburuaren bi egileek ere, Judit eta Nandok, lehen unetik horixe transmititu izan digutelako. Ez hori bakarrik; beste behin ere frogatu da eurengan sinistuta proiektu kolektiboek indar eta emaitza itzelak eman ditzaketela. Gora RIP ta RIPtarrak! •

Gobernu frantsesak ematen duen Mendeurrenaren Label Ofiziala eskuratzen duten ospakizunen parez pare, hainbat gizarte eragile Lehen Mundu Gerraren bestelako ikuspegi bat ematen saiatzen ari dira Ipar Euskal Herrian. Donibane Garazin, esaterako, Nafarroa Beherean garaiko errealtatearen irakurketa egiten duten hainbat mintzaldi antolatu dituzte. Bestalde, Gobernu frantsesak Lehen Mundu Gerraz egiten duen erabilpen politikoari erantzuna emateko, gaur, Baionan, «euskal oroitzapena pizteko, eta 1914-1918 artekoa itzaletik argira ekartzeko ikuskizuna» eskainiko da. Helbide honetara jo daiteke sarrerak eskuratzeko: *euskaloroitzapena@gmail.com*.

Bertsoak, dantza, musika eta antzerkia bilduko dituen “Euskal oroitzapena, itzaletik argitara” obra grabatu eta eskuragarri emanen dute ondoren, baina ez da eragile ezberdinek abiatutako elkarlanaren emaitza bakarra izanen. Izan ere, bildutako informazioarekin, atzemandako dokumentuekin eta egindako elkarriketekin liburu bat argitaratuko du 1609 elkarteak. Ondoren, Lehen Mundu Gerraren ondorioak pairatu zituzten pertsonen oroigarri bat ere egingen dute, intsumisoak eta desertoreak ere kontuan izanik.

Zerk eraman zaituzte ikuskizuna sortzera?

Batez ere, kontatzen diguten historian zulo sakon handiak ikusi izan ditugula. Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoan bizi garenok Estatuak zabal-tzen duen bertsioa jasotzen

«Mobilizatzeko deia jaso zuten euskaldunen %25 intsumiso izan ziren Lehen Mundu Gerran»

IBAI TELLETXEA

1609 ELKARTEKO KIDEA

Lehen Mundu Gerraren bukaeraren mendeurrena beteko da bihar, azaroak 11.

Urteurrena ospatzeko zein salatzeko ekimen ugari antolatu dira Europan barna.

Ipar Euskal Herrian bizi izan zen egoera aztertu eta horren berri emateko «Euskal

oroitzapena, itzaletik argira» ikuskizuna sortu dute 1609 elkarteak, Zizpa

Gaztetxeak, Bernart Etxepare Lizeoak, Epaiskak eta Bertsularien Lagunek. Gaur

aurkeztuko dute, Baionako antzokian.

dugu txikitatik, herri guztietan heroiei eraikitako oroigarrien bidez kasu. Azaroaren 11 guztietan desfileak, bandera militarrek... izaten ditugu gure herrietan, eta frantsestak ez garenontzat mingarria da. Kontzientzia minimodun euskaldunontzat umiliagarria da.

Ipar Euskal Herrian 158 herri daude, eta beste hainbeste oroitarri ditugu, zertarako eta euskaldunek gerran egindako balentriak oroitzeko. Estatuaren asimilazio estrategiaren barruan kokatzen da hori. Etnozidiodia pairatu dugu, talde sozial batek beste talde etniko baten berezitasun kulturalak sistematikoki deuseztatu ditu, historiaren, eskolaren... erabilerarekin. Egun genozidiorik ez da jada Euskal Herrian, baina XX. mendera arte, etno-zidiodia eta genozidiodia, biak, uztartzen ziren.

Egun, demokrazian egonik, etno-zidiodia modu legalean pairatzen dugu, liburuen bidez, historiaren bidez... Horren baitan kokatzen dugu Lehen Mundu Gerrari buruzko lan hau. 100. urteurrena etorriko zela-eta Estatuak ospakizun handiagoa egingen zuela aurreikusiz, antolatu ginen, “Euskal oroitzapena, itzaletik argira” ikusgarria sortzeko.

Nolakoa izan da bidea, zer lan egin duzue obra sortzeko?

Historia aztertu dugu eta arrakala handiak ikusi ditugu. Dokumentu ofizialak hartu ditugu, eta horiekin orain arte inoiz kontatu izan ez dena kontatu nahi izan dugu: gure herritarrek zer pairatu zuten. Ekitaldi kultural baten bidez sekulan omenduak izan ez direnak omenduko ditugu. Grabatu ere egingo dugu, etorkizuneko belaunaldiak izan dezaten dokumentu pedagogi-



ko bat. Laster argitaratuko den liburua ere izango dute.

Hego Euskal Herrian frankismoarekin gertatzen denarekin alderatuta, adibidez, Iparraldean historiaren beste pertzepzio bat dagoela ikus daiteke.

Hego Euskal Herrian oso gizarteratuta dago frankismoa zer izan zen, herritarrek badakite nortzuk izan ziren gaiztoak, oroigarriak egin izan dira biktimak oroitzeko. Herritarren gehiengo frankismoaren aurka dago, euskal fronte bat ere egon zen frankismoaren kontra. Baina, hemen, 1914 eta 1918 arteko gerraren harira, ez da gauza bera gertatzen; hemen deitu gintuzten Frantziaren alde borrokatzera, ez zen horren kontrako frontera izan. Horrek herritarren artean arrakala sakonak eragin ditu, eta horregatik gaude egun hain frantsestuta.

Estatu frantses mailan, Lehen Mundu Gerran, euskaldunen artean izan zen desertore gehien diferentzia handiarekin, eta 12.000 bat intsumiso ere izan ziren. Liburuarekin gehiago zehaztuko dugu, baina, gutxienez, mobilizatzeko deia jaso zuten euskaldunen %25 intsumiso izan ziren. Estatu frantseseko batez bestekoa %1,5koa izan zen.

Ehun urte hauetan, belaualdi guztiek galdu dute historiaren zati hori. Estatua beti saiatu da zer gertatu zen isilarazten, prentsaren bidez, zigoren bidez, xantaiaren bidez... Herritarrek isilarazi, lotsarazi, umiliatu dira; beldurra sortu da. Adibidez, gerla garaian, intsumisoen familien etxeetako ateetan oharrak jartzen zituzten herritarrek ikus zitzaten, eta horrek errak sortzen zituen familien artean. Estatuak

horrelako estrategiak erabiltzen zituen zauriak sortzeko. Hori mendez mendez egin da, baina Iparraldean ez da Hegoaldeko probintzietan bezala kontatzen. Oraindik herritarrek ez dute intsumiso eta desertoreen historia kontatzen, isilean gelditu den zerbait da.

Zein izanen da ikuskizunekoaren argumentua?

Gaizka Sarasola lesakarrak idatzi du antzerkia, eta garaiko bi- zipenak eta eszena errealeak izanen dira. Atzemandako gaiak eman zaizkio, eta antzerkia idatzi du. Horrekin batera, Amets Arzallus eta Sustrai Collina izanen dira, antzerkia

«Hego Euskal Herrian ez bezala, Iparraldean herritarrek ez dute oraindik ere intsumiso eta desertoreen historia kontatzen, isilean gelditu den zerbait da»


ikustearekin batera, inprobisatuz bertsoak botako dituzte. Kantuak egonen dira, Gorka Knör eta Nat eta Watson. Afixan ez den artista ezagun bat ere izanen da, ez dugu erranen nor. Berak, gerlan alemanen esku preso egon ziren euskaldunek kantatzen zituzten abestiak oholztan interpretatuko ditu. “Maitia nun zira?” dokumentalean agertzen direnak, hain zuzen ere.

Omenaldiak ere egongo dira, eta horri garrantzi handia eman nahi izan diogu, urtero pairatzen ditugulako besteen omenaldiak gure 158 herrietan. Lizeoko ikasleek dantza bat sortu dute, eta hori izango

da omenaldia. Hitzartze bat ere egongo da, pixka bat arlo historikoa gerrari lotuta azalduz, eta zerk bultzatzen gaituen ikuskizuna sortzera.


Guk ez dugu nahi ekitaldi hau “Iparraldeko” ekitaldi bat izatea, ez zelako horrela izan, nahiz eta armadara deituak bertako hiru probintzietako gazteak izan. Gerratearen ondorioak Euskal Herri osoak pairatu zituen. Ekitaldian denetarik egongo da, nafarrak, arabarrak, lapurtarrak... Denen afera da, eta denok jakin behar dugu zer gertatu zen.

Testu liburuetan agertzen den historia ofizialetik ihesi,





«Ekitaldiaz eta liburuaz gain, Frantziaren alde borrokatu zirenak gogoan dituzten oroigarrien osagarri izanen den beste bat sortu nahi dugu, itzalean gelditu direnak omentzeko»



beste ikusmolde bat eskaini nahi duzue, ezta?

Hori da gure helburu nagusienetakoa bat. Gaur egun, Frantziako Hezkuntza Nazionaleko 8 eta 9 urteko ikasleen programan agertzen dira uztailaren 14a, Frantziak Lehen Mundu Gerra eta Bigarren Mundu Gerrak nola irabazi zituen... Oso garbi daukate historia nola kontatu. Eta gu euren menpe izanik, hezkuntzan irizpide horiek inposatzen dizkigute; beraiek idatzitako historia ikasi behar dugu. Horregatik, funtsean, kontatu ez den hori kontatu nahi dugu. Ez dugu arazorik esateko euskaldun batzuk borondatez joan zirela gerlara, baina izan ziren behartuta joan zirenak ere; nahiz eta egun euren izenak monumentuetan jasota dauden, behartuta joan ziren.

Zeintzuk dira lan hau egitearen beste helburuak?

Liburua eta ekitaldia dira ardatzak, baina beste helburu bat ere badugu. 158 herri eta

158 oroitarri ditugu, denak Frantziaren alde borrokatu zirenak goraipatuz. Bada, oroigarrien osagarri izanen den beste oroitarri bat sortu nahi dugu, itzalean gelditu direnak omentzeko. Lehen harremanak izan ditugu hautetsi eta auzapez batzuekin, eta oraingoz begi onez ikusten dute, baina ideia landu egin behar da. Horrexegatik, herritarrei, hautetsiei eta auzapezei egitasmo hau lantzen ari garela helarazi nahi diegu. Gogotsu badira beren ekarpena egiteko, oraindik badute aukera. Make-ta bat ere egina da.

Beharrezkoa da belaunaldi berriek badela beste oroigarri bat ere ikustea. Estatu frantsean badaude antzeko beste hamarren bat oroigarri, xede ezberdinak dituztenak. Urte luzez inauguratu gabe egon dira, Estatuak ez baitzuen uzten bestelako mezurik zabaltzerik. Oroigarriok dauden herrietako biztanleak pribilegiatuak dira; beste bertsio bat ere jasotzen dute txikitatik, eta, hala, aska-

tasunez beraien gogoeta egiteko aukera dute.

Nolakoa izango da liburua? Nork idatziko du?

Ni ari naiz liburua idazten, baina talde bezala argitaratuko da, 1609 elkartaren izenean. Ikerketa zehatza egin dut, jakin nahi genuen herri batzuetan zenbatek hartu zuten parte gerlan eta zenbatek ez. Jaiotze agiri guztiak begiratu ditut, gero erregistro militarrean joan naiz, eta hor ikusi dut zeinek hartu zuen parte eta zeinek ez. 1609 elkarteko Xabier Elosegik gauza bera egin du Saran, eta, Auxtin Zamorak, Senperen. Horrekin abiatu nintzen, baina gero ikusi nuen sakondu behar nuela, hutsune asko zeudelako. Horregatik Paue eta Baionako artxibategietara joan naiz, dokumentu ofizialen bila. Horrez gain, idazlanak eta elkarrizketak egongo dira. Eta gaur egungo egoerari buruzko saio historikoa, Elizak gerlarekiko izandako jokabidea...

Nola elkartu zineten bost eragileak?

1609 elkartaren inizatibaz. Beste elkartengana joan ginen, iruditzen zitzaigulako hau guztia kolektiboki antolatu behar zela. Denek hasieratik begi onez ikusi zuten.

Iruditzen zaizu Ipar Euskal Herriko gizartea zabaldu nahi duzuen mezua jaso eta onartzeko prest dela?

Urtez urte familia asko umiliatu eta zapalduak izan dira, barneratu dute traidore eta gaiztoak izan zirela, bereziki adin bateko pertsonen. Batzuei zaila egingo zaie, burua astindu behar delako, urteetan txiki-tuak izan eta gero omendu nahi dituzten jendea heldu zaielako. Adineko batzuekin elkartu eta gero ikusi dut batzuk hunkituta zeudela, eta gure lanarekin segitu behar genuela. Batek esan zidana buruan gelditu zait: «Bidetik lainoa kenduko duzue». Aldiz, kontrakorik ez dugu jaso, hau da, horrelakorik ezin dugula egin esan digunik. Batzuen poza ikusi dugu, eta besteak ur hotz balde baten zain egongo balira bezala daude; oraindik ez dute kokatu edo pentsatu hau egin zitekeenik, ehun urte eta gero. Helburua eztabaida sortzea eta eragitea da. Horregatik hautetsi eta norbanakoe-kin landu nahi dugu gaia, batbatean heltzen den oroigarri bat izan ez dadin. Ekitaldia, ondorengo bideoarekin eta liburuarekin batera etorriko da.

Kontakizun ofizialean omen-dutakoak, beste ikuspegi hau onartzeko prest al dira?

Hori horrela ez dugu aipatu zuzenean. Baina omenaldian parte hartzeko esan eta jaso dugun erantzuna ikusita, uste dut ez dela arazorik izango.

Sentsibilitateaz, berriz ere

**Maidor Iantzi
Goienetxe**

Badakit lehenago ere idatzi dudala sentsibilitateaz eta honen faltaz. Mediku kontsulta batean gertatu zitzaidana konpartituen aitzineko zutabe hartan. Gaur antzeko zerbait pasatu zait eta berriz idaztea merezi duela pentsatu dut. Ez naiz erabat biluziko hemen zuen aurrean, baina ideia bat egiteko kontatuko dizuet espero ez nuen zerbait bota didala sendagileak. Gauza ttikia, baina niretzat garrantzitsua eta ezezaguna. Burua pape-retan sartua zuela mintzatu da; hotz, niri begiratu gabe eta azalpen gehiagorik eman gabe, nire erreakzioari errepa-

ratu gabe. Eta aitzinera segitu du, bertze kontu pila batez informazioa ematen, kontu eta paper pila bat. Hau egiteko, bertzea egiteko... Niretzat azkarregi, gauza gehiegi batera izan da eta gauza bati ezetz erran diodanean –orain ez, espetu pixka bat–, nire gaitasuna zalantzan jarri du. Segituan erantzun diot –jakina ahal dudala, baina joan pausoz pauso– eta gustura gelditu naiz horrekin. Ateratzean, pasilloan, erizainak eman dit kezkatu nauen gauzatxo horri buruz medikuak eman ez didan azalpen lasaigarria, eskua eta besarkada batekin batera. Ez zaidala gustatu medikua nola solastatu

zaidan adierazi diot, eta bion begiek bat egin dute, bereak ere malkotan.

Ez dakigu nola dagoen bertzea, ez dakigu nolakoa den, eta errazegi epaitzen dugu. Gauzak errateko modua zein garrantzitsua den gogoeta eginez lanera noala, CAF enpresak bertako langile Celestino Tolosa amiantoak hil zuela dioen epaiari helegitea jarri diola jakin dut. Celestinoren alaba Otsanda eta Kontxi Urbietak alarguna ezagutzeko zortea izan dut eta beren izateko eta jokatzeko moduarekin gelditzen naiz. Garbi dago gauzak egiteko bi modu daudela: ongi egin daitezke, edo gaizki. •

Urduri dago Markel Olano

**Xabier Mikel
Errekondo**

Erraustegia bai ala bai. Horixe izan da Gipuzkoako Foru Aldundiaren mezua 2002tik. Harago, legegintzaldiko hauteskunde programan “Erraustegia bai” inprimatu izanagatik eraikitzeke zilegitasun osoa duela dio ahaldun nagusi Markel Olano etengabe... Aitzakia eskasagorik!

Hondakinak arazo soziala dira eta munduan zehar irtenbide jasangarriak adostu dituztenean, Gipuzkoan alderdiek arazoa kontzienteki pozoitu egin dute. Galdeketa interesen arabera erabiltzen duten alderdi berak. Galdeketa, baina, amarru galanta da herritarrek behar beste informaziorik ez badute. Gal-

deketak azken aukera behar luke, soilik herritarrek erabakia adostu ezin dutenean, eta aurrez parte hartzearen lau faseak bete beharko lirateke: informatu, eztabaidatu, erabaki eta erabakitakoa bete.

Politikariek, baina, ez dute nahi parte hartzea artikulatzeko mekanismorik, nahiago dute galdeketen amarruekin jo-lastu. Parte hartze loteslea vs galdeketa. Lehenean gobernuak kontrola galdu egi-ten du, bigarrenetan *tempo*-a, egokiera, galdera eta abar kontrolatzen ditu; eta komunikabide nagusiak eraginkorrak ak dira.

Horregatik dago urduri Aldundia Gu-raSOS plataformaren dinamikarekin.

Proiektu estrategikoak molde parte hartzaile sendoz erabakitzeke proposamenak Aldundiaren kontrol absolutuaren zutabea erdiz erdi jotzen du. Bestalde, GuraSOSek dianan jo du erraustegiak minbizia eragiten duela azpimarratzean eta seme-alaben osasuna erdigunean jartzean. Gipuzkoar gehienak erraustegirik ez dugu nahi (galdeketa aspaldi egingo zuketen PNVren inkesta ugariak kontrakorik baliote) eta hauteskunde bezperan urriak 27ko manifa handiak urduri jarri du Gipuzkoako Aldundia. Agian “El Diaro Vasco”-ren kanpainak jada ez dira hain eraginkorrak... •



> Txarrenari onena atera dio Altsasuk



Idoia ZABALETA

Kolore guztietako irudiak eskaini zituen joan den igandean Altsasuk. Ciudadanos, Vox eta PPK Sakanako herria aukeratu zuten ekitaldia egiteko; bizilagunek, oster, jai giroan adierazi zieten ez zirela ongi etorriak.



Eguneko irudiak eta bideoak bolo-bolo ibili ziren sarean, eta NAIZ+ haien bilduma egiten saiatu zen. Ehunka herritar bildu ziren Altsasun “Espainia herritarra” lelopeko ekitaldia ez zela ongi

etorria esateko. Goizean goizetik segurtasun neurri zorrotzez inguratuta esnatu zen herria. Foruzaingoak eta Guardia Zibila itxi egin zituzten plazarako sarrera-irteerak. Albert Rivera, Voxeko buru Santiago Abascal eta Nafarroako PPko presidente Ana Beltran txalo artean eta bandera espainolak goratuz hartu zituzten autobusez hara joandakoek, eta hauei, «alde hemendik» oihukatuz egin zieten harrera antifaxistek deitutako mobilizaziora joandako milatik gora lagunek. Ciudadanosen ekitaldia hasi orduko, kanpai hotsak nagusitu ziren plazan, hizlarien hitzak zapalduz. Kanpai hotsak isildu eta musikak hartu zuen lekukoa, ekitaldia ia amaitu arte. Bien bitartean, Iortia plazan Amets Arzallusek, Onintza Enbeitiak, Fermin Muguruzak, Xabi Solanok edo Zuriñe Hidakok parte hartu zuten, besteak beste, probokazioei aurre egin nahi zien ekitaldian. Askok izan ziren igandeko pasarteak betikotu eta sare sozialen bidez lau haizetara zabaldutako nahi izan zituztenak.



> «Pasaia-ko badia» dokumentala, ikusgai

1984ko martxoaren 22an Pasaia-ko badian jazotako gertaerak dituen oinarri “Pasaia-ko badia” dokumentalak. Bertan, Poliziak Pedro Mari Isart, Dioni Aizpuru, Jose Mari Izura eta Rafael Delas hil zituen. Dokumentalean hildakoen senideek, abokatuek, lekukoek, Paco Etxeberria mediku forentseak eta Carlos Garaikoetxea lehendakari ohiak parte hartzen



dute, besteak beste. Argitaratu eman eta urtebetera, filmaren bertsio guztiak igo dituzte sarean. Euskarazko bertsioa EiTbren web orrialdean dago ikusgai, eta gaztelaniazko, ingelesezko eta frantsesezko bertsioak, berriaz, Youtube atariko Oinatzak Produzioak ekoiztetxearen kanalean. Filmak izan duen «harrera ona» azpimarratu dute.



> Otzarretako pagadia, Twitterreko izar

Udazken koloreen ispilu da egunotan Gorbeiako Otzarretako pagadia. Kolore berdea galdu eta gorriz tindatuta ageri dira hostoak, lurra estaltzen duen alfonbragorri amaigabe bat osatuz. Inguaruak Telemadrid kateko kazetari Ibon Perezen ikusmina eragin zuen eta bere mugikorrarekin filmatu nahi izan zuen naturak eskaintzen zion estampa. Joan den larunbatean partekatu zuen bere Twitter kontutik eta bideoa ia



120.000 aldiz ikusia izan zen bi egun eskasetan.

«Hil aurretik lekuren bat ikusi nahi izanez gero, hauxe da lekua», dio Araba eta Bizkaia batzen dituen pagadiaren irudiak biltzen dituen txioak.

Ehun urteko pagoak zeharkatzen dituen kolore bereziko errekatxoak izaera mistikoa ematen dio inguruari. Hori dela eta, baso sorginduaren fama izan du garai askotan.

> Tortura

Pasa den igandean ETB2 kateko “360 grados” programak tortura hartu zuen hizpide. “Torturas, el crimen mejor escondido” izenburupean hamarkada desberdinetako biktimen testigantza jaso zuen Eider Hurtadok aurkeztutako programak. Polizia etxeetan bizitako infernua deskribatu zuten biktimek, kontaketa oso latzak eta gogorrak izan ziren eta sarean zeresana eman dute astean zehar. Horrez gain, poliziaburu izandako baten eta militar ohi baten hitzak



ere jaso zituen programak eta batek zein besteak argi eta garbi onartu zuten tortura praktika horiek existitu direla.

Pako Etxeberria forentseak ere parte hartu zuen programan. Lakuarentzat egindako txostenean 1960tik 2014rabiartean gertatutako 4.113 tortura kasu dokumentatu ditu Etxeberriak eta egindako lan horri buruz aritu zen aditua.

Telebista saioak audientzia datu onak izateaz gain, sareetan ere bolo-bolo ibili da.



> Haurren babes kutxak, erraustegiaren aurka

Haurrak, ingurumena, elkarbizitza edo etorkizuna babestu nahi duten kutxak plazaratu ditu GuraSOS plataformak. Erraustegiak eragiten duen esparruan bizi diren hurrek egindako marrazkiak biltzen dituzten postalak gordetzen dituzte kutxatxo horiek. Eta postalak, Gipuzkoako ahalzun nagusi Markel Olanori zuzenduta daude. «Gure hau-



rren begiradak berritzen du itxaropena guregan eta goizero sinestarazten digute ez dela berandu Gipuzkoa osasuntsuago baten alde egiteko», dio postaletako batek.

Babes kutxok salduta bildutako dirua Hitzartu herritarren parte hartze prozesuaren gastuak ordaintzera bideratuko da.

Nola ote dago Arrate Illaroren agenda? Euskaraldiko koordinatzailea da eta Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalaurrekoetara sailkatu da. Euskaraldia azaroaren 23an hasiko da eta abenduaren 3an amaitu. Eta Illarok, okerrik ezean, finalaurrekoa jokatu du abenduaren 1ean, Lekeition.

Agendarena galdetu eta hasperen egiten du, irribarrea galdu gabe hala ere. «Egia esan nahiko beteta daukat. Batez ere lanean nago zentratuta, Euskaraldian. Urte eta erdi daramagu honetan eta erabat horretara nago. Nire lagunek eta etxekoak pairatzen dute azken hilabeteetan lanarekiko dudak obsesio puntua. Baina gozatzen ari naiz eta ez da gogorra. Badakit hilabete batzuetako kontua dela».

Horixe igota dagoen trenetako bat. Bestea, Bizkaiko Bertsolari Txapelketa. «Urte hasieran ilusio bereziarekin eman nuen izena txapelketan. Aurrekoan ebakuntza bat izan nuen txapelketa garaian eta aurtan ondo nahi nuen entrenatu, neukan arantza txiki hori atera. Oraingoan, nahi baino gutxiago ari naiz entrenatzen. Nire txapelketa une honetan Euskaraldia dela uste dut», aitortu du. Errespetutik egiten du, hala ere, aitorpena, badakielako txapelketa gauza serioa dela. «Txapelketara baldin bazoaz, prestatu egin behar duzu. Erantzukizuna duzu zure buruarekin, kantukideekin, publikoarekin, elkartarekin... Ahal dudana egiten ari naiz, tope nabilelako. Baina pentsatzen dut txapelketan ari diren beste bertsolari asko berdin ariko direla; bakoitzak bere ardurak ditu etxean,



Euskaraldiak eta Bizkaiko Bertsolari Txapelketak betetzen dute uneotan Arrate Illaro getxoztarraren agenda eta burua. Jon URBE | FOKU

infraganti ARRATE ILLARO

Akaso ahobiziak eta belarriprestak agertuko zaizkio alboko aulkietan eserita, kantukide, hurrengo finalaurrekoarekin amets egiten duenean. Martxa bizian doazen bi trenetan igota dago uneotan Arrate Illaro (Getxo, 1989): Euskaraldia eta Bizkaiko Bertsolari Txapelketa. Bateko koordinatzailea da eta bestean finalaurrekoetara sailkatzea lortu du.

lanean... Nire lana une honetan publikoagoa da, baina bertsolari denek dituzte beren kargak». Txapelketaren tren horretan oso aurrera iritsi da Arrate Illaro, finalaren aurreko geltokira. Hala ere, bidea ez da ordeka izan. «Aurtan zalantza handia izan dut txapelketara aurkeztu edo ez. Udaberriko fasea pasata ere, zalantzan jarraitzen nuen eta udan presente izan

dut zalantza. Txapelketan gehien pizten nauena, gehien erakartzen nauena, bertso eskolako entrenamendu prozesua da. Gure kasuan, gainera, dezente gaude txapelketan eta asteen pare bat aldiz izaten da hitzordua entrenatzeko, Algotako bertso eskolan. Hortik aparte, norberaren lana egitea egokitzen da, eguneroko gaiak jarraitzea eta horiei buruzko

gogoeta egitea; errimak lantzea; koadernoko lana... tira, saiatu naiz sikiera asteen behin bertso eskolako hitzordura azaltzen, taldean lan egiteko. Eta, gainera, bertso eskolako lagunek asko laguntzen didate, ez didate uzten errenditzen eta entrenatzera behartzen naute. Asko estimatzen diet bultzada hori, presio hori ondo datorkit».

Bultzatuz-bultzatuz, finalaurrekoetara iritsi da Arrate Illaro, aspaldi ez bezala. «Bertso eskolako entrenamenduekin jarraituko dut. Saiatuko naiz gozatzen eta nire buruari gogor egiten, ahal dudan onena emateko. Saiatuko naiz ez erlaxatzen azken agurrera arte», aitortu du.

EUSKALGINTZAK, UNE BEREZIA
Pentsatzekoa da azken asteak ez direla lasaiak izaten ari getxoztarrarentzat. Burua hainbeste tokitan izanda, ez da samurra izango oholtzara igotzea, prentsaurreko bat ematea, elkarrizketa bati erantzutea... Bere buruarekin harritzen ari ote den galdetu eta barre egiten du Illarok. «Igual bai. Egia esan azken urte eta erdian asko ikasi dut. Pribilegiatua sentitzen naiz euskalgintzan une honetan eta toki honetan egon ahal izateagatik. Jende askorekin ari naiz ikas-



ten; harremanak, lankidetza, bilerak... Sentitzen dut izugarri ari naizela ikasten eta erritmoari eusten ari naizela. Duela hilabete batzuk pentsatzen nuen sasoi honetan nekatua-go, erreago eta gaingituago egongo nintzela, eta, egia esan, oso gustura nago. Lanpetuta, baina pozik».

Bertsozale Elkarteko zuzendaritzako kidea ere bada. Justu gogoeta garai betean dago Bertsozale Elkartea, baina Arrate Illarok «lan baimena» dauka pixka batean aparte ibiltzeko. «Ahal dudanean saiatzen naiz joaten. Nik izugarri ikasi dut Bertsozale Elkartean. Eta han ikasitakoak balio dit orain egiten ari naizen lanean. Batzuetan sentitzen dut Euskaraldian nagoela Bertsozale Elkartean ikasi dudanari esker».

Euskalgintzak une berezia bizi duela sentitzen du. «Ez bakarrik ahobizi edo belarriprest izango diren herritar guztien-

gatik; lankidetzagatik, kohe-sioagatik... Konbentzitura nago urratsak ematen ari garela. Euskalgintzaren barruan benetan ari gara lankidetzan, erakunde publikoekin benetan ari gara lanean, gizarte eragileak norabide berdinean ari gara lanean... Inplikazio handia sentitzen dut eta benetan pribilegiatua sentitzen naiz». Horixe bere motorra.

Euskaraldiak haize berri bat dakar, hizkuntzaren normalizazioaren alde jarduteko ertz berriak dakartza. Ahobiziak ulertzen duenari euskaraz egingo dio, hark erdaraz erantzun arren. Eta ezezagunei lehen hitza, gutxienez, euskaraz egingo die.

Belarriprestak, berriz, euskaraz egiteko eskatuko du, ulertzen duelako. Agian erdaraz erantzungo dizu, baina zuk berari euskaraz egitea nahi du.

«Aldaketa bat probokatzen ari garela uste dut. Norbaitek

«Pribilegiatua sentitzen naiz euskalgintzan une honetan eta toki honetan egon ahal izateagatik. Jende askorekin izugarri ari naiz ikasten; harremanak, lankidetza, bilerak...»

Euskaraldiak geltoki berri bat paratu dio euskararen normalizazioari, ahobiziek eta belarriprestek nolabaiteko lasaitasun linguistikoa topatu dezaketen geltoki bat

gazteleraz edo frantsesez egiten dizunean, ez diozu zertan hizkuntza horretan erantzun, zuk jarraitu dezakezu euskaraz egiten. Elkarrizketa elebidunak posible dira. Gainera, horiek ekarri dezakete elkarrizketa euskarara, eta ez beti egiten duten bezala, erdarara. Eta hor mentalitate aldaketa bat egin daitekeela sentitzen dut».

Hamaika eguneko ariketa horretatik kanpo –batzuek hobeto eta besteek okerrago egingo dute–, izena eman du-

tenek egin duten gogoetari balio berezia ematen dio Illarok. «Gure hizkuntza praktikari buruz gogoeta egitea izugarri emankorra iruditzen zait. Horrekin dagoeneko emaitza ona iruditzen zait».

Ez luke nahi, hala ere, inork bere burua zigortzea ariketa ez duelako behar bezain zuzen egin. «Euskaldunok badugu joera gure burua zigortzekoa; erdarara pasatu garelako gaizki sentitzea; lehen hitza euskaraz ez dugulako egin gaizki sentitzea...».

GELTOKI BERRI BAT

Euskaraldiak geltoki berri bat paratu dio euskararen normalizazioari, ahobiziek eta belarriprestek nolabaiteko lasaitasun linguistikoa topatu dezaketen geltoki bat. «Oraindik lana dugu egiteko. Euskararen ezagutza indarra egiten jarraitu behar dugu eta euskaraz bizitzeko ditugun oztupoak gaingitu behar ditugu. Baina pauso bat emateko momentuan egon gaitezke. Erabaki pertsonaletan jarri dugu aurten indarra –entitateen erabakietan ere eragiten saiatzen ari gara–, eta erabaki pertsonal horien indarrak mugiarazi ditzakete entitateak. Baina, noski, erakundeekin ere lan egin behar da».

Informazioa zabaldu eta zabaldu ari diren arren, kontziente da «oraindik herritar askok ez dutela Euskaraldiaren berri». «Euskara askotan ahizpa txikia da; bai albistegietako berrien ordenan eta baita kaleko elkarrizketetan ere. Baina, tira, Euskaraldia arnas luzeko proposamen bat da. Aurten saiatuko gara pauso batzuk ematen, baina gehiago eman beharko dira». •



Garazi Goia - @GaraziGoia
Idazlea

Ez dago lekurik

Aspaldian hileta-martxa bat ikusi gabe nengoen. Gaur ikusi dut bat auzoan, hil kutxa zerman autoa pasatu da lehenengo, handia, distiratsua, ia hotsik ateratzen ez duten horietakoa; atzetik beste bi kotxe beltzek jarraitzen zioten. Ez dakit inoiz hileta-martxarik ikusita neukan Londresen. Ez dut uste. Bizitzako une hori existituko ez balitz bezala bizi garela hiri honetan pentsatu dut; hilobira iritsi aurretik pertsonak desagertuko bailiran, hemengo bizitza eta egunerokotasunaren abiadurarekin desintegratuta. Hainbeste jende dabil joan-etorrian, horrek hartzen duela protagonismo guztia; eta, hiriak daukan aurrera jarraitzeko grina horretan, betiko doazenak ahaztu egiten direla, berekoikeria handiengan. Hiriak une hori itzalean uzten du, ez dauka leku duinik joaten direnentzat. Londresek hamar milioi biztanle ditu eta agidanez batez beste egunero 275 pertsona hiltzen dira. Non lurperatuko ote dituzte? Galdera horrek zer pentsatua ematen dit, hotzikara batek zeharkatu dit gorputz osoa. Non hilobiratuak izatea nahi dugun galdera ez da askotan naturaltasunez eztabaidatzen dugun zerbait.

Beste noizbait ere aipatu izan dut Maria Teresa Leonen esandakoa: «*Estoy cansada de no saber donde morir. Esa es la mayor tristeza del emigrado. ¿Qué tenemos que ver nosotros con los cementerios de los países donde vivimos?*» (Non hilko naizen ez jakiteak nekatu egiten nau. Hori da erbesterratuak duen tristorik handiena. Bizi garen lurraldeetako hilobiek zer esanahi dute guretzat?).

Hilerri oso politak daude Londres hiriaren erdian, publikoari irekiak. Bunhill Fields hilerria adibidez; William Blake eta Daniel Defoe bezalako “inkonformistak” eta giza eskubideen

berdintasunaren alde borroka egindakoak bertan daude. Brompton hilerriaren ondoan bizi izan nintzen Londres lehenengoz iritsi nintzen eta askotan zeharkatzen nuen oinez; kafe etxe bat ere badago han erdian, hiriaren zaratatik ihesi bake bila doanarentzat, 200 mila panteoi eta hilibien erdian. Highgateko hilerria ere berezia da, bertan daude Karl Marx eta TS Eliot. Eta, Golders Greenen, Sigmund Freud, Peter Sellers eta Bram Stoker.

Hala ere, hilerri horiek guztiak XX. mendean paralizatuta gelditu zirela iruditzen zait, eta ez dagoela lekurik horma-hobi modernoentzat. Hautsi egingo luke egundoko estetika hori. Baina, non sartzen dituzte egunero hiltzen diren ehunka pertsona horiek?

Pentsamendu hauek buruan nituela sartu naiz liburdenda batera, eta, atearen aurreko salmahaian, bi izenburu hauetara joan zait begia: “111 places in London that you

shouldn't miss” (huts egin ezin diren Londresko 111 leku) eta “1.000 ultimate travel experiences – make the most of your time on earth” (nahitaezko 1.000 bidaia esperientzia – mundu honetan zauden bitartean ahalik eta gehien disfrutatu). Lehenengo liburuari gainbegiratu azkarra eman diot eta 111 lekuetatik hogeita hamar ingurutan oraindik ez naizela egon ohartu naiz. Eccleston Mews, Fremanson's Hall, Bevis Mark Synagogue, Cafe E.Pellicci, Quantum Cloud, St John-at-Hampstead, eta abar. Zerrenda oraindik gehiago luzatu da bigarren liburua ireki dudanean. Denbora aurrera doala ziztu bizian eta oraindik egiteko asko ditudala birgogoratzeko gogomuta subliminala zen akaso. Kasualitatea, berrogei urte bete ditudan egunean hau gertatzea. •



Londresen egunean 275 pertsona hiltzen dira. Non sartzen dituzte? GAUR8

BEHATXUL[]TIK

Juantxo EGAÑA



MUSÉE DU SERVICE DE SANTÉ DES ARMÉES

GRAND HOTEL BIARRITZ OSPITALE BIHURTUTA

1918ko azaroaren 11n amaitu zen Lehen Mundu Gerra. Kalkulatzen denez hamasei milioi pertsona hil ziren, horietatik zazpi milioi zibilak. Gerra urteetan Biarritzen 22 ospitale izan ziren martxan; horietako batzuk lehendik ospitale zirenak eta beste batzuk egokitutako hotelak eta kasinoak. Goiko argazkian Grand Hotel Biarritz ageri da, ospitale bihurtuta. 120 ohe zituen eta Jacques de Poliakoff mediku errusiarra zuzentzen zuen. Teresa Santos, Uruguaiako presidente izandako Maximo Santos alabak, ospitalea bisitatu zuen 1915ean. «Une ikaragarriak bizi izan dituzte; bi mila eta hiru mila zauritu artean gora eta behera... Goizeko seietan lanean hasi eta gaua ondo sartu arte jo eta ke segitzen du Poliakoffek. Zauritu asko eta asko sendatu ditu. Nire bisitaren egunean 146 gizon ikusi nituen besoak eta hankak larri zaurituta, ebakita... Hori bai, denak sendatzeko bidean ziren. Eta denek hunkituta kontatzen zidaten mediku horrek salbatu diela bizia», kontatu zuen Santosek bisitaren ondoren. Grand Hotel Biarritzeko ospitalea gasek eta arma kimikoek zauritutakoak sendatzen espezializatua ere bazegoen.



GAUR8 *ireki gure leihoa*

